

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Urtarrilak 26, 49. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



ARRASATE TELEBISTA
23. kanalean

**ARRASATE
AUKERA GALDUAREN
BILA**

*Jose Santiago Torres
Bergarako epailea*



LORAMENDI KIROLAK

BEHERAPENAK

LUMATXAK
ANORAKAK
TXANDALAK...

ARRASATE TELEBISTA

(ATB)

**SINTONIZATU
GURE AJUSTE-TAULA
ZURE TELEBISTAREN
23. KANALEAN
UHF_n**

OHARRA: Monokanaldun antena duzuenok 23 kanaleko amplifikadorea (2.000 - 3.000 pta. inguru) jarri beharko diozue, ATBren seinalea jaso ahal izateko. Badaezpada ere, kontsulta ezazue zuen antena jartzailearekin.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate Pasealekua 3 Bis, etxebehea.
20500 ARRASATE. Tfnoa: 79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Josune Biteri

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karme-
le Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza,
Blanka Jauregi, Klarion Taldea,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,
Iñaki Aranburu, Hankamotz,
Maite Toledo, Atalataikoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3,
bis, behea. 79 71 64


Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Kasualitatea

Kasualitatea izan da. Eta kasualita-
tearekin sarri gertatzen den bezala,
fikzioa eta errealitatea non elkartzen
diren edota aiposekoak egiarekin nola
mugatzen duen bereiztea zaila gertatu
zait. Opari bat egin didate: *"Crónica del
rey pasmado"* liburua, Gonzalo
Torrente Ballester galziarrarena.
Aurrera joan baino lehenago aitorten
bat egin behar dut: Torrentek
idatzitakoetatik horixe da irakurri ahal
izan dudana liburu bakarra. Kronika
horrek eten du Torrenterekiko nire
ezintasuna.

Espainiako gortearen pikareska era
atseginez deskribatzen duen liburu ho-
nek bat egin du, nire eskutara iristean
irakurtzen ari nintzen *"Cartas de Felipe
II a las infantas sus hijas"* deritzanare-
kin. Azken hori, Gachard batek idatzia,
1883an Parisen. Kasualitatea, hain
zuzen ere, giro berberetsua azaltzen
duten bi publikazio horiek egun bereko-
ak ezagutzea eta euren orrialdeetan ba-
rra aurreratzea izan da.

Erregeak—mundu osokoak—haragiz-
koak ditugunez gero, sexuak dantzan
ipini ditu, aro guztietan. Dena den, goi
instantzietatik ezarritako "moral garbi
eta ikutuezin" batengatik errege-erregin
hilkorren joera naturala sekretupean
izan da gordeta, sexuaren grina
menpekoei bakarrik egokituko balitzaie
bezala, eta gure sexu-heziketa erregeen

sasi zintzotasunean oinarritu beharko
balitz legez.

Austriarrak, euren aurrekoak bezala,
sexu zale amorratuak ziren. Nik ez dakit
Torrentek Gacharden lekukotasuna eza-
gutuko duen ala ez. Garbi dagoena, be-
rriz, hauxe da: garaiko giroaz ongi jabe-
tua dagoela. Eta erregea putetara doala
idazten duenean, historiak eskainitako
erreferentziak maisuki erabiltzen ditue-
neko segurantzari ari da. Zergaitik izan
behar zuen beste modu batez?

"Cartas de Felipe II..." liburuxkan,
Gachard izeneko horrek erregea hurbil-
dik tratatu zuen zenbait pertsonaiaren
aitorpenak aukeratzen ditu; Federico
Badoaro Veneziako enbaxadorea ei zen
eta begira zer zioen: *"...es incontinente
(Felipe II) en los placeres sexuales, di-
virtiéndose en andar de máscara por las
noches, aún en medio de graves nego-
cios..."* Gure ikasketetan ez ziguten
"campeón del catolicismo"-aren gaine-
ko horrelako irudirik azaldu.

Bostehun urte igaro dira austriarren
erregetzari hasiera eman zitzaionetik.
Gero borboiak agertu ziren eta, egun,
horietako bati zor diote espainiarrek
ohore. Ezin jakin, berrogeitamar urte
barru nola irakatsiko dieten espainiar
umeei euren historia, baina—badaezpada
ere eta adiskidetasunetik—ez lukete
ahantzi beharko errege-erreginak hezur
eta mamizkoak direna.

Josemari Velez de Mendizabal

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza ausoa - t/797658 Arrasate

enpresa
bazkariak
eta famili bilerak

gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

MARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apalketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABAETA

MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzarriak

Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

**Irabazi dugu artikikuluari
erantzunez**

Lehenik eta behin, adierazi beharra dut ez naizela lehengo (Ulgor.Koop.Elk.(gaur egunean Fagor elektrotresnak, koop.Elk.) enpresaren ezelako estamentu sozialekoa. Beraz, hauetatik kanpo hartzea eskatzen dizuet. Aldi berean, goiko indizeetatik kanpo nago, makina bat "trienio" pilatu ondoren, 2 indizetik behera.

Etxebarria jauna, bai, irabazi dugu, eta gainera lege onean. Botoek halaxe erakusten digute, 900etik gora zure proposamenaren alde. Eskertu beharra dizuegu, baina geroago hobeto aztertu ondoren, neure buruari galdetu diot, zer egingo dugu abuztuan 37 opor-egunekin, ozta-ozta 15 egun baino gehiago ezin badugu igaro etxetik kanpo.

Agian proposamen ofizialarekin eta beste denboraldietako kostuak txikiagoak izanik, Aste Santutan Pirineotara, Pico edo Mediterraneora "txango" bat egiteko moduan egongo ginateke...baina zera, zer hori ondo kontzentratutako oporraldi baten ondoan!

Eta askoz gehiago eskertuko dizugu, maiatza, ekaina edo uztailen, egutegi mugikorak aplikatzen direnean eta egunero 10 ordu lan egin beharra dugunean, abuztuko esistentziak betetzeko, zeren eta zeinek ez daki abuztuan ere saldu egiten dela. Oraindik ere, egoera hau gertatuz gero, itxaropena geratzen zaigu Bartzar Orokor berria deitzeko beharrezko firmak bilduz egoerari irtenbidea emateko. Jakina, hau ere irabazi egingo zenuke, komunitatearen onerako azaldu dituzun ahaleginak ikusirik. Eta horrela, hurrengo bi urteetan Fagor Elektrotresnak enpresaren egoera soziala asko hobetuko litzateke, neurri errepresiboak suposatzen dituztenak ekidinez eta bi urte aipatu dut, ze hirugarrenean langabeziaren zerrendan egongo ginateke eta, gure eskerrona itzelezkoa izango litzate-

leelarik, eta zuk ere helburu pertsonala lortuko zenukeen, aldi post-atomikoaren Robin Hood bihurtzea. Irabazi duzu, Etxebarria, baina mesede handirik ez diguzu egin, eta askok hurrengoan ez irabaztea espero dugula esaten ausartzen naiz, eta are gehiago, hurrengo saiatu ere ez zaitezela.

EIT

Aborto librea, epaiketarik ez!

Iruñean 24, 25 eta 26an egingo diren epaiketen aurka eta abortatzeko eskubidearen alde Arrasaten ostiralaren 19an egin zen manifestaldiaren ondoren emakume talde batek Eskualdeko Ospitalean gure errei-bindikazioen aldeko hertsialdi bat egin genuen.

Abortoari buruzko legeak honen dohaintasuna jaso behar du, zeren eta PSOEko Gobernuak, bere legeak sortu duen arazoari aurre eman beharrean, irtenbiderik errezena aurkitu du, pribatizazioa, dohainik izan behar duen osasun zerbitzua negozio pribatu bihurtuz, eta emakume guztien eskubidea izan behar duena dirua dutenen eskuetan bakarrik jarriz.

Premiazkoa dugu emakumearen erabakitzeko ahalmena ziurtatzen duen lege bat, abortatzeko eskubidea beraien eskuetan bakarrik egon behar bait du.

Giltzurrunetako arazoak zituela eta erradiakzioak hartu zituen gazte bati Gizarte-Segurantzaren abortua praktikatzegatik epaituak izan diren hiru pertsonen absoluzioa. Aborto hau legala bait zen, legearen hirugarren balioztapen barruan sartzen zelarik: fetorearen malformazio arriskua.

Abortatzeko erabakia emakumearena behar du izan.


Deba Garaiko Emakumeen
Asanblada

Patinetean erabilpena debekatzearen alde zaude?




Ines Sutil
(langilea)

Bai, nire ustez arriskutsua da eta ez da beharrezkoa, hau da, patineteaz gain jostailu ugari dago.



Mikel Marras
(ikaslea)

Beno, patinetean ibiltzea leku batzuetan arriskutsua izan daiteke, kotxeak eta, ibiltzen direlako. Edonola ere, ez nago bere erabilpena debekatzearen alde. Arriskurik ez dagoen lekuetan erabili beharko litzateke.



Tomas Sanchez
(jubilatua)

Beno, nire ustez jostailua da eta horrela hartu beharko genuke. Ematen zaion erabilpenaren arabera arriskua izan dezake, baina ez dut uste debekatu beharko litzatekeekin.



Maria Pilar
(langilea)


Debekatu egin beharko litzateke, oso arriskutsua bait da. Eskolatik irten eta abiada bizian aritzen dira kalean.

L E N I Z

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9-Tel. 79.46.04

ESKORIATZA-Arana, 13-Tel. 79.36.59



Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebisa, Adeslas


(Muface) eta partikularrak

Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tlnoa: 79 04 14 Arrasate

MemesA

79 42 22



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA

Tlnoa: 79 88 75

79 75 99

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorria	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945)455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziaz	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	797844
.....	797678

Garraloak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	798777
--------------------------------------------------------------	--------

26 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "No mataras al vecino". 7 eta 9,30etan.
- Bertso afaria. AED elkartearen egoitzan, gaueko 9,30etan.
- Antzerkia. Duodeno taldearen eskutik "Pasen y mueran" antzslana ikusteko aukera. Bergarako Novedades zine-aretoan, gaueko 10etan.
- Meatzerreka auzoko jaiak:
 - Jubilatuen omenez afaria, gaueko 9etan.
 - Erromeria trikitilariekin. Gaueko 11etan.
- Goardiako farmazia: J.A. Irizar. Erguin.

27 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "No mataras al vecino". 5, 7,30 eta 10etan.
- Novedades: "Black Rain". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Umeentzako antzerkia. Jake Mate taldearen eskutik "Buruburu" antzslana ikusteko aukera. Amaia antzokian arratsaldeko 6etan.
- Meatzerreka auzoko jaiak:
 - Haur jolasa. Arratsaldeko 4etan.
 - IX. Mus Txapelketa. Arratsaldeko 5etan. Izen ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehena go.
- Goardiako farmaziak: L. Amezua. Sta. Marina.

28 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Historias de Nueva York". 5, 7,30 eta 10etan.

Novedades: "Black Rain". 5, 7,30 eta 10,15etan.

- Meatzerrekako jaiak:
 - Arrasate Musikal Soinu Orkestaren ekitaldia. San Valerio ermitan, goizeko 11,30etan.
 - Erromeria "Gardoki" k alaituta. Eguerdiko 1,30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Magdalena.

29 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Historias de Nueva York". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Black Rain". 7,30etan.
- Goardiako farmazia: Morales. San Andres.

30 ASTEARTEA

- Zinea: Alai "Historias de Nueva York". 7 eta 9,30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

31 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago sesiorik
- Goardiako farmazia: Español. Iturriotz.

1 OSTEGUNA


- Zinea: Alai:
- Mahaingurua: "Euskal Egunkaria" gaiaren inguruan. Parte hartzaileak: Joxemi Zumalabe, Iñaki Zarragoa, Amatifo, Jon Basterra. Arratsaldeko 7etan, Monterroneko hitzaldi aretoan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

IKASTAROAK


UNEDen Ekialdeko kulturei ekeinitako kurtsoa "Ekialderuntz begira" izenburupean. Kurtsoak larunbatean, hilak 27, hasi eta Martxoaren 17 arte iraungo du. Gaiak: "Ekialdeko geopolitika", "Idazkera ideografikoa", "Japoniako herri poesia", "Indiako literatur klasikoa", "Ekialdeko teatrogintza", "Ekialdeko artearen ezaugarriak", "Taoismoa" eta "Budismoa".

Microsoft Word, testu prozesadore ikastatora. Otsailaren 5etik 9ra bitartean, arratsaldeko 4etatik 8etara. Izen ematea Arrasateko IMIn 79.80.86. Deitu ahalik eta azkarren.

Euskal egunkaria MAHAINGURUA



Iñaki Zarraoa




Amatiño

Zergatik, norentzat, zenbaitan, noiz, finantzaketa, kontrola...Euskaldunon ahotan dabilzan galderei erantzun aproposak entzuteko aukera eskaintzen dizuegu.

Gai horretaz gaur Euskal Herrian aurki daitezkeen pertsonarik kualifikatuenetakoak ekarri ditugu

Eguna: Otsailak 1, osteguna
Ordua: Arratsaldeko 7etan
Lekua: Monterroneko hitzaldi-aretoa



Joxemi Zumalabe



Jon Basterra

SAN VALERIO JAIAK, Meatzerreka auzoan

Urtarrilak 26, ostirala

Arratsaldeko 8etan JAIEN HASIERA
Gaueko 9etan JUBILATUEN OMENEZ AFARIA
Gaueko 11etan ERROMERIA TRIKITILARIEKIN

Urtarrilak 27, larunbata

Arratsaldeko 4etan HAUR JOLASAK
Arratsaldeko 5etan IX MUS TXAPELKETA

Sariak:

1. 25.000 pezeta, txapelak eta trofeoak
2. 15.000 pezeta eta trofeoak
3. 10.000 pezeta
4. 6.000 pezeta

Gaueko 11etan DANTZALDIA "EGUZKI" TALDEAREKIN eta ZUZKO ERRUERAK
Goizaldean TXARRI HARRAPAKETA eta TXOKOLATADA

Urtarrilak 28, igandea

Eguerdiko 11etan MEZA, SAN VALERIO ERMITAN
Eguerdiko 11,30etan SAN VALERIO ERMITAN, ARRASATE MUSIKAL SOINU
ORKESTAREN EKITALDIA
Eguerdiko 1,30etan ERROMERIA "GARDOKIK" ALAITURIK

“— Euskara ez da egunkari batetik pasatzen; ez dauka pasa beharrik behintzat. Agian prentsa idatzitik pasatzen da, baina ez egunkaririk. Demagun Eusko Jaurlaritzak erabakitzen duela egunkari bat egin beharrean Arrasate Press bezalako astekariak egin behar ditugula, oso lokalak, ze munduko korrante guztia informazio lokaletik dator.

— *Informazio nazionala ere beharko da, ezta?*

— Bai, behar da, baina erabaki dezake informazio nazionala badagoela, badago Euskadi Irratia eta badago ETB. Eta gu nola iristen gara benetan Arrasateko bailarara? Prentsa zer da? idaztea bakarrik? ala feed-back bat lortzea, jendeak horrekiko lotura izatea, eta gero iragarkiak saltzea, tokian tokikoak? Hori ere bada prentsa ezta?

— *Hori ere bai. Egin ditzagun 20 Arrasate Press, baina egunkaria ere bai; orokortasun bat behar da.*

— Baina irratiak badu orokortasun hori; zergatik egin behar du prentsak hori? Zer da inportanteagoa: 10 mila ale salduko dituen periodiko txukun bat, ala 20 puntutan 80 mila aldizkari saltzea? Zer da hobe euskararentzat?

— *Biak beharko dira.*

— Baina lehentasunak markatu behar dira”.

(*Amatiñok, “Argia” astekarian*)

“Indarra hartu dugu eta egundoko igoera gertatzea lortu ere, duela hiru urte sei baino ez ginen eta gaur egunean hogeitamar lagun gara eta, bataz besteko adina hogeitamar urtetik beherakoa delarik. Urtean 150 milioi fakturatzen ditugu Lantek-en, zortzirehun metro karratuko azpiegitura batekin”

(*Juan Luis Larrañaga, Lantek enpresako zuzendariak DVn*)

Zer eritzi duzu Eskola Politeknikoak eta honen inguruan dagoen kooperatibismoaren mugimenduaz?

Azken batean Euskola, kooperatibak, gaur ireki dugun elektronika laborategia, guzti hauek, arrakasta itzela izan duen erronkaren adierazgarriak baino ez dira.



Arrakasta horren giltza aurrerapen teknologikoa, gauza guztietan aurrean egotea, munduan zehar ematen diren berrikuntza guztien berri izatea eta giza inguru batean kokatzean dago. Alde horretatik mirestu egiten dut esperientzia hau, zeren mugimenduaren berezitasunen gainetik, nire ustez herri honen ezaugarriekin bat bait dator. Akaso modelo honi jarraitzen ez dion edozein enpresak ere uztar litzake bi ezaugarri horiek baina argi daukat Mondragoeko fenomeno bere ingurunean erroto dela eta aldi berean mundura proiektatzen jakin izan duela.

Esan beharrik ez dago etorkizuna ikusten diodala, ze etorkizuna pertsonengan sostengatzen da. Proiektuak pertsonen bidez edo lider batuketaren bitartez bizirik dirauen neurrian, oso etorkizun garrantzitsua ikusten diot. Bere baitan isteko edota bere gain arriskuak hartzen ez dituen edo berritzaile izatea ikusten ez duen egitasmotan sartzeko tentaldia ez duten neurrian, jakina.

Guzti honen eragina jende askok bizi izan duelako proiektua eman da, ingurunea kontutan hartuz eta batera, ingurune horri aurrerapen teknologiko izugarria ekarri.

*Jose Antonio Garrido
Iberdueroko lehendakaria*

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



ERAÑA
AHOLKULARITZA
OROTARAKO
ASEGURUAUAK

Kontzesiño kalea 4, behea
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

AURRERATZEKO

SF
AIZKORA

AUTOZERBITZUA

Maalako Errabala 7, Tfnoa: 79 15 56

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

* Odontologia orokorra

* Protesi finkoa

* Protesi mugikorra

* Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

“Burburu”, umeentzako antzerkia

Errenteriako Jake Mate taldea, larunbatean, 6etan

Datorren larunbatean, urtarrilak 27, arratsaldeko 6etan Errenteriako Jake Mate antzerki taldea izango dugu Amaia antzokian, umeei eskainitako “Burburu” lanarekin.

Jake Mate taldeak urte bat darama lanean, eta zazpi urtez Atelier izenarekin aritu diren antzesle berberak osatzen dute: Josetxo Almandoz, Koro Ertetxe, Patxi Garrido, Pablo Lasa, Julia Lopez, Mila Balda, Javi Huete, Kontxi Soto, Jesus Rivas eta Isa Borrero. Eurekin kolaboratzen, Andone Esparza, Javier Busselo eta Maria de Bernardo.

Esan bezala, urtebete lanean, eta



jada- nik bi obra landu dituzte, “Desserto”, eta larunbatean aurkeztuko duten “Burburu”. Azken honetan, bi gizaseme eta bost mamu elkartuko dira gaueko hamabietan, hutsik dagoen gaztelu enkantatu zahar batean; bertan aurkituko dute “Burburu”, edozein desio lor dezakeen kutxa magikoa.

■ Jaialdietarako laguntza

Asteleheneko Gobernu Batzordean, Javier Hernandezi kiroldegian bi jaialdi antolatzeko laguntza eskaintzea erabaki zen. Bilera berean ere, Arrasateko gazte talde batek Skate pista bat egiteko eskatuz aurkeztutako proposamena kontutan hartzea onartu zuten.

■ The Godfathers

Arrasateko Kiroldegira hurbilduko da rock musika talde britaniarra. Jaialdia otsailaren 3an, larunbatez, gaueko 10etan. Euskadi Irratia dugu kontzietoaren antolatzaile, eta gogoratu sarrerak Eresin aurkituko dituzuela salgai.

Britaniarrekin batera, *La Perrera* taldea ikusteko aukera.



“Los Suaves” Arrasaten

Goiko puntaraino bete zen larunbat gauean Musakolako kiroldegia, Orenseko rock taldea zuzenean ikusteko. Lehen aldia zen galiziarrek Euskal Herrira etortzen zirela, eta saio polita burutu zutela esan behar. Ordu t'erdian zehar, aspaldiko eta gaur egungo abestiak nahastu zituzten. Badirudi azken boladan goi-mailako musika taldeak Arrasatera hurbiltzen hasiak direla, eta duda barik, albiste pozgarria dugu hori inguruetako gazteontzat. Hurrengoak nortzuk?

Bainugela-erakusketa

I RE KI B E R R I A !!!

ibarluzea

Olarte 19-21, Tfnoa: 79 22 49 ARRASATE

Matrikula-epea AEKn

Urtarrilaren 17tik otsailaren 8a arte zabalik egongo da AEKn euskara ikasi nahi dutenentzat izen emateko epea. Ordutegia, goizean 10etatik ordubatera, eta arratsaldean 4etatik 7etara. Maila guztietan apuntatzeko aukera dago. Horretarako, jo Erdiko kale 28ra, edo 797112 telefonora.

Aborto-epaiketaren aurka

Pasa den ostiralean, Emakumeen asanbladak protesta ekintzak egin zituen, Iruñean aurrera daramaten epaiketa dela eta (legezko aborto baten kontrako epaiketa). Manifestazioa egin, eta Eskualdeko ospitalea ere 'hartu' egin zuten, beren haserre erakusteko.

Beronika Garai

Joan zen astean, ostegun goizean, Goardia Zibilak Beronika Garai arrasatearra atxilotu zuen "Araba" komandoaren partaide izatearen salaketapean. Dagoeneko Madrilan espetxeratu dute. Atxilotetaren berri izan bezain laster hasi ziren mobilizazioak herrian, asteburu eta astegunetan ere hainbat manifestaldi burutu direlarik.



Txandaka

Emakume eta lana



Jaione Guezmes (*)

"Emakumeek pairatzen dugun benetazko egoera kaleratzea eta salaketa horren bidez kontzientzia sortaraztea" dira gaurtik aurrera martxan jarri dugun "Emakume eta Lana" kanpainaren zutabe nagusiak.

Gaur egun arazoak "indibidualki" bizitzeko tendentzia dago. Langabeziarena, esate baterako, arazo indibiduala balitz bezala hartzen du emakumeak. Besteentzat lanik ez badago, nola egongo da niretzat? Era indibidual batetan bizi diren arazoak dira eta kontzientzia sorterazi behar dugu guztiengan eragina duen fenomeno soziala baita. Emakumeok gure egoeraren kontzientzia hartuaz, ikusirik ez dela aislatuki gertatzen zaigun zerbait, baikik eta bizi dugun egoera hori kolektiboa dela, laneginez jo behar dugu aurrera.

"Emakumea eta Lana" kanpainak bi fase izango ditu, bata orokorra eta bestea herrietan kokatuta. Euskal emakume langileen egoeraren aspektu guztiak azaltzen saiatuko gara eta gero, herri bakoitzeko arazo berezi eta partikularrak aztertuko ditugu alternatiba zehatzak eskaintzeko. Kontutan izanik une honetan, daturik ez dagoela eta kontzientzia eza nabari dela, errea-

litatearen ezagutza bultzatu eta kaleratu behar dugu.

Hamar egunez gartuko den kanpainaren lehen fasean krisialdi ekonomikoak emakumeengan dituen eraginak aztertuko dira, gero alternatibak eskeintzeko. Ekonomi egoerak

euskal emakume langileengan ondorio bereziak ditu, sistema kapitalista eta patriarkalak emakumeoi ezarritako rola, lan munduan gure lekua izango dena guztiz mugatzen du. Ideologia patriarkalak oso ondo jakin du emakumeon papera etxeko espazioan kokatzen, gu bait gara sistema kapitalista bera manten dadin sostengu garrantzitsuenetarikoa. Hau dela eta, lan munduan sartzen garenean, guretzat kontsideratzen diren lanak normalean etxean egiten ditugun lanen jarraipena izango dira.

Bigarren fasea etxeko lanaren desmitifikazioan zentratuko da batik bat. Arlo honetan badaude soldata aldarrikatzen duten alternatiba batzuk, formula hau emakumea etxean mantentzeko beste bide bat delarik. Guretzat etxean egiten dena beste lan mota bat da eta soldata aldetik laguntzaile eta neska-meen kasuak aztertuko ditugu.

(*) Egizan-eko partaidea

inpresio ona



inprimategi eta autoedizio zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA



Udaletxe zaharrak itxura berria

Bergarako Udaletxea berriztear

330 milioiko aurrekontuaz, ekainean has daitezke lanak

Bergarako Udalak onartu berria du bertako Udaletxean berrizte lanak egiteko erabakia. Erabaki horren arauera, 330 milioiko aurrekontua ematen zaio proiektu berriari.

Oraindik ere kabu asko lotu beharra dago. Hilabete barru zabalduko da obrak egin nahi dituzten enpresak aurkeztu daitezten deialdi publikoa. Horren ondoren, adjudikazioa. Prozesu luzea dela kontutan izanda, ekainerako hasi nahiko lituzkete lanak.

Beste arazo bat ere planteatzen zaio Bergarako Udalari, hau da, toki bat egokitu beharra dagoela, obrek irauten duten bitartean ohizko lanak egiten jarraitzeko.

Badirudi azkenean Irizar Jauregia bihurtuko dela administrazio-gune, bolada batean behintzat; bai

na bertan hiru kolektibok dihardute lanean gaur egun, HHI, Udal Euskaltegiak eta zenbait pintorek hain zuzen ere. Hiruren artean 300 pertsonatik gora mugitzen dituzte. Hori dela eta, Udalak erantzun egokia bilatu beharko du eurentzat nahitaez.

Udaletxeari aldameneko Gabilondo etxeari zegokion planta gehituko zaio. Itñaki Aspiazu arkitekto bergararrak egin duen proiektuaren arabera, etxebehean idazkaritza, udaltzaingoa, diru artekaritza eta beste hainbat zerbitzu kokatuko dira. Lehen solairuan Alkatetza eta batzar aretoak, eta bigarrenean udal zerbitzu teknikoak.

Uste denez, obrak bi urtez luzatuko dira. Amaitzean, Udaletxe berri-an denak sartuko ote?


Usteak uste...

Urtebete pasatxoan bide berriak zabaldu ditu Arrasate Pressek. Plazartzekoan, euskara elemento integratzaile izatea nahi genuela aldarrikatu genuenean zenbaiti, ez akaso arrazoi barik, irribarre maliziotzua irristatu zitzaion. Urtearen bueltan, nahikunde hura neurri handi batean betetzen ari dela esango nuke. Edade eta jatorri desberdinetako jendea ari zaigu aldizkaria eskatzen, eta dakigunez inoiz euskaraz irakurri ez duen askok, gustora irakurtzen du astekari hau. Ostiraletan jendea zain egoten da eta, honengatik ala hargatik, bateren bati ez bazaio alea heltzen, segituan jakin erazten digu. Ez da seinale txarra, alajaina!

Orain, berri, telebistaren erronka dugu. Honez gero ajuste taula jarrita dago. UHFren 23.kanalean. Emisorea, beraz, bere lekuan dago. Programak emititzen hasteko apurtxo bat itxaron beharko dugu, hainbat tresna ailegatu bitartean. Konturatu orduko, hala ere, zuen etxetan izango gaituzue.

Arrasate Telebistaren egitasmoaren atzean gaudenok, berriro ere ATBren bidez euskara elementu integratzailea izaten segitzea nahi dugula esan behar. Mondragoek edozein herri modernok aurrera egiteko behar duen herri telebista izango du ATBn. ATBren bidez - Arraste Pressen bitartez bezalagobeto ezagutuko ditugu gure herria eta herritarrak. Ez da gutxi izango. Informazio, kultura eta entretenimendu iturri izatea lortzen badugu.

Joxe Aranzabal



Gas, gasolio eta elektrizitateko berogailu eta aire girotuko instalazio elektrikoaren disenua, muntaia eta mantenua

Industrialdea, B-5, ARETXABALETA Tfnoa: 79 03 03 ARRASATE Tfnoa: 79 05 18

LILURA -ek zeure moda diseinatu eta sortzen laguntzen dizu

Zerkaoteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Drogari buruzko hitzaldiak

Drogomenpetasun zerbitzua antolatzen ari da

Apirilean talde bat eratu zen S. Andresen drogaren arazoari aurre egiten hasteko.

Talde horren eraginez, Arrasateko Udalak bere gain jaso zuen bulego bat irekitzea, eta pertsona kualifikatu bat aukeratzea eginkizun hau aurrera eramateko. Badirudi Udalaren asmoa egiaztatzen ari dela, eta laster hasiko da lanean Drogomenpetotasun zerbitzua Deunoro Oteroren ardurapean.

Ildo beretik, datorren astean, urtarrilaren 29an hasita, Arrasate oso-

ra zabaldu nahi da San Andreseko esperientzia hura. Horrela, hitzaldi-elkarrizketak eratu dira auzo ezberdinetan. Urtarrilaren 29an Zigarrolan, 30ean Monterronen eta 31ean Erguinen, guztiak ere arratsaldeko zazpiretan.

“Gizakia helburu” taldearen lan-kideak eta toxikomanoen guraso pare bat etorriko dira Donostiatik, eta hitzaldietara hurbiltzeko deia zabaltzen zaie arazo hau hurbiletik bizi duten herriko guraso eta gazte guztiei.

■ Bi Hitzaldi

Asteartean, bi hitzaldi izan genituen. Lehena Ikasbidek antolatuta, Ojala etxean eman zena, Aingeru Zabalaren eskutik. Aingeru historialaria da; Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Eusko Jaurlaritzako liburutegi eta museoetako zuzendaria. Gizarte gatazkatsua aztertu zituena, euskalduna batipat (azken 200 urteotan etengabeko tentsioan bizi dena). Amaieran, galde-erantzunen txanda ireki zen. Aipatu behar entzule gehienak kooperatiba mundukoak zirela.

Batzokian, bestalde, Juan Mari Ollora Diputatu arabarra izan genuen Autodeterminazioaren gaia jorratuz, alderdiko militanteen aurrean.

■ Euskal egunkaria

Datorren ostegunean, otsailak 1, euskal egunkariari buruzko mahain-gurua antolatuko da Monterronen, arratsaldeko 7etan. Bertan izango ditugu Iñaki Zarraoa (Eusko Jaurlaritzakoa), Amatiño (Egunakoa), Joxemi Zumalabe (Argia) eta Jon Basterra (Egin).

Jaiotzak

Perez Mazorriaga, *Lohitzune*.
Urtarrilaren 12an
Uribarren Martin, *Iker*. 15ean
Fernandez Latorre, *Adrian*. 16an
Gorrotxategi Dominguez, *Julen*. 18an
Martins Linaza, *Iraitz*. 19an
Oiarzabal Zubia, *Alex*. 22an



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE


“C” Gasolioaren erabilera

Arrasaten, 300 bat familiak homologazioa egin behar

1988ko uztailaren 18an onartu eta Aldizkari Ofizialean 89ko irailan argitaratutako aginduaren ondorioz, etxeko kalefakzio sisteman “C” gasolioa erabiltzen duten guztiek martxoaren 31a baino lehen Eusko Jaurlaritzaren Industri sailaren homologazioa lortu behar dute; hau da, gasolio mota hori erabiltzeko baimena lortu beharra.

Arrasaten 300 bat familia daude aipaturiko kasuan. Ondorioz, OMIC-KIUBek hainbat neurri hartu ditu laguntza emateko: aginduaren kopiak eman informazioa izan dezaten, instalatzaileen zerrenda eman nora jo behar duten jakiteko, prezio dezberdintasunez ohartu aurrekontuak eskatzeko aholkatuz (toki batzuetan 8.000 pta, besteetan 35.000), aurrerantzean instalatzaile baimenduekin lan egiteko aholkua eman, “A” gasolioaren berri eman, erregailu automatikoa izan behar dutela jakin erazi, etab.

Gaur arte 90 homologazio-paper eskatu dira KIUBen, baina Eusko Jaurlaritzako Industri sailera ez da bat bera ere heldu. Horren arrazoia zera izan daiteke: instalazio zaharkituegiak direla, ez homologagarriak, eta ondorioz jendeak nahiago duela gas naturala heldu arte itxaron, eta



Bidoiak gasolindegian betetzen dituzte

bitartean “A” gasolioa erabili (nahiz eta litro bakoitza “C” delakoa baino 24 pta. garestiago izan).

Arazoaren oinarria honako hau litzateke: gehienak orain hamar urte jarritako galdarak direla, erretzeko tanta sistema erabiltzen dutenak. Kotoiaz eta alkoholaz egiten da leherketa, eta homologazio aginduaren helburua, leherketa hori automatikoa beharko litzateke izan (sistema zaharra arriskutsutzat jotzen bait da).

**Gerardo Markuletak,
“Donostia hirian” 3. saria**

Gerardo Markuleta ofatiarrak eskuratu berria du aurtengo “Donostia hiria ipuin lehia-keta”ren 3. saria, “Zopernaren astindua” lanarekin.

Gerardok *Jon Iriberry* goitizena erabiltzen du literatur sormen lanetarako. 26 urte ditu, eta San Viatorren BBBko zuzendaritzan ari da. Arrasate Pressen, *Zeuk Sortua* atalaren arduradun eta ohizko kolaboratzailea ere.

Oraingo honetan ipuingintza landu badu ere, badirudi poesia gustokoago duela. Etorkizun laburrean liburu bat argitaratzeko asmoa du, “*Larrosak noizean behin*” izenburua duen poesi liburu, hain zuzen ere.

Ez da literatur sari bat jasotzen duen lehen aldia (orain gutxi AED lehiaketetan poesia sailean irabazle), eta seguraski ezta azkena ere. Zorionak Gerardo!




LASAGABASTER

Jantzidenda

***Bertan izango duzu beti modako
gauzarik onenen aukera zabalena***

Garibal 9, Tfnoa: 79 89 97



Kontsumo ikastaroa

Eskoriatzako Irakasle Eskolak ireki, postgraduatuentzat

Astelehenean inaguratu zen Eskoriatzako Irakasle Eskolan postgraduatuentzako kontsumo ikastaroa. Inagurazioan Jose Manuel Freire (Kontsumo eta Osasun Sailburua), Manuel Huertas (Hezkuntza Sailburu-ordea), Angel Delgado (Kontsumo zuzendaria), Jose Manuel Villar (Eskoriatzako Alkatea) eta Jesus Garmendia (Irakasle Eskolaren zuzendaria) izan genituen.

Kontsumo Ikastaroak maiatzaren 15era arte iraungo du, ziklo guztieta-ko (Eskolaurrea, OHO, BBB, Ira-

kasle eskolako irakasleentzat, etab) irakasleei zuzendua egongo delarik. 250 ordu emango dira, eta ordukopuru horren %80 klase tekniko-teorikoentzat gordeko da, %20an klase praktikoetan diharduten bitartean. Euskaraz ere hainbat ordu.

Ikastaroaren helburu garrantzitsuena, biharko irakasleak ondo prestatzea, 1990etik aurrera martxan jarriko den egitarau berezi baten bidez kontsumitzailearen heziketari dagozkion gaiak gutxika-gutxika eskoletan sartzeko.

■ Santamasak-89 lehiaketa

Santamasak-89 argazki lehiaketaren erakusketa urtarrilaren 19tik 28ra egitea espero bazen ere, azkenean atzeratu egingo dute data. Horrela, argazkiak Monterroneko Erakusketa aretoan eukiko ditugu ikusgai, urtarrilaren 27tik otsailaren 4era. Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa urtarrilaren 28an, ordu batetan, Monterronen.

■ Espedientea Gestorari

Gobernu Batzordeak, asteleheneko bileran, Gestoraren tabernako arduradunei espedientea zabaltzea erabaki zuen. Badirudi taberna kartzatzen deneko auzokideek hainbat salaketa egin dutela Udaletxean, Gestoraren tabernak Gabonetan sortu zituen zarata ugari eta ordutegi 'bereziengatik'.

■ Igoak kontratua luzatu

Jon Igoa arrasatearrak hiru denboralditarako kontratua sinatu du aste honetan Errealarekin. Honenbestez, badirudi aurrelari fina gurekin izango dugula 1994eko ekainerrate, kontratuan 500 milioiko klausula jarri bait du Errealak.

■ Udal zergen exentzioa

Otsailaren 28a arte zabalduko da herriko jubilatuei eta langabetuentzat, udal zergen ordainketen exentzioa eskatzeko epea.

Trapo's

BOUTIQUE

Uribe auzoa 2, Tfnoa: 79 83 38 ARRASATE

VE ECUADOR

Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE

Etxezarretako landareria galtzekotan

Euskal Herriko errepideei buruzko egitasmoaren ondorioz

1989ko urrian aurkeztutako Euskal Herriko errepidei buruzko egitasmoaren ondorioz, badirudi hurrengo urteetan asko aldatuko dela Arrasateko ingurua. Proiektuaren barruan, Durango-Bergara-Beasain lotzea dugu helburuetariko bat. Horretarako, 1993a baino lehen, Arrasaten bukatze dagoen saihebidia Bergarakoarekin elkartu beharko dute.

Ingurunea hondatu

Badirudi Arrasate eta Bergara lotzen zituen trenbide zaharra erabili nahi dutela bideberriaren oinarritzat. Dena den, saihebidia trenbidea baino zabalagoa da, eta ondorioz gaur egun mendi eta baso diren hainbat gune janda geldituko dira obrak hastean.

Gune horietariko bat Etxezarreta baserria dugu. Toki garrantzitsua, bertan dagoen landareria eta faunaren aberastasunagatik.

Mende hasieran Rafael Ariza bizi izan zen Etxezarretan. Botanika zaletua, Euskal Herrian berez sortzen ez diren hainbat zuhaitz bitxi landatu zituen bertan, oraindik ere han aurki ditzakegunak.

Rafael Ariza 1934ean hil zen (bertan lurperatua dago). Hurrengo urteetan hainbat pertsona bizi izan ziren han, baina dagoeneko 25 bat



urte daramatza hutsik.

Horrek zera posibilitatu du, bai zuhaitz bitxi haiek eta bai berez jaiotzen zirenak bere kasa hazi direla urte guzti hauetan zehar. Orain, dena bapatean galtzeko arriskua dago.

Gutxienez zati bat gorde

Etxezarreta bi zatitan banatu genezake, alde batetik etxea eta etxeingurua (bertan kokatzen da Rafael Arizaren lorategi bitxia), eta bestetik maldan gora zabaltzen den basoa. *Mendia bizirik* ekologista taldearen eritziz kontua zera litzateke, ingurua ondo aztertzea, ahalik

eta zatirik txikiena urratzeko; hau da, saihebidia bai goitik edo bai behetik eraikitzea, erabiliko ez den zatia errespetatuz.

Besteak beste, honako espezie hauek aurki daitezke gaur egun Etxezarretan: zuandorra, intxaurra, makal beltza, haltza, izaia, lizarra, hagiña, urritza, astigarra, sagarra, intsusa, gerezia, gaztaina, sahatsa, okana, gorostia, haritza, artea, palmondoa, sekuoia, ezpela, alkazia, urkixa, etab. Halako aberastasun guzterik gordetzen ez badugu, laster pinuak besterik ez ditugu ezagutuko.

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

BAZAR
TOKI ON

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94



**Almacen del Mueble
Mondragon**


Prezio paregabeak Zatozte!!

Gipuzkoa Etorbidea 6, Lehena behea. Legarre



Zaindu

Zarugalde 16, 3. esk. Tfnoa: 79
13 37ARRASATE



繁昌(亞洲)有限公司

利雅諾

亞太區銷售經理

香港九龍尖沙咀彌敦道二十七號
 日昇中心 1208,1211 室
 電話：二一七九七〇六六 四
 傳真：32689 FAGAS HX
 傳呼：3-7978519

oporrak gure artean eman ditu. Mondragoeko kontuez ondo informatua dago, Arrasate Press astero jasotzen bait du Hong Kongen. Bisita txartela ere utzi zigun, txineraz gainera.

Juan Agiriano mondragoetarra Fagor taldearen salmenta managerra da Ekialdean. Hong Kongen egiten du lan eta gabonetako



Urtarrilaren 11an hasita, asteartero, arratsaldeko 3etan hogeiren bat emakume biltzen dira AEDren egoitzan, Mari Carmen Zubillagaren ardurapean sexualitate ikastaroak aurrera eramateko.



Agustin Bergaretxe, "Pinpo", urtarrilaren 17an irten zen Lannemezán-eko espetxe frantsezetik. 1985eko otsailaren 25ean atxilotu zuen polizia Angelun (Iparralden), eta bost urteko kartzela zigorra ezarri. Asteazkenean 15 arrasatear hurbildu ziren Lannemezán-era, mikrobusez, "Pinpo" agurtzera. Alkatea ere han izan zen, argazkian ikusten duzuen bezala.

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK
 Iturriotz, 15
 Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

KOLTA

FAGOR SUKALDEEN
 HORNIDURA OSOA
 OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892


A r r a s a t e

u
t
o
e
s
k
o
l
a



Klase
 praktiko
 eta
 teorikoak

Olarte, 30
 79 89 89



Arrasate pasealekuko etxe honetan, Batzoki inguruan, dagoeneko bederatzita edukin-ontzi lur atera dituzte. Lan eta lan, baina noizean behin atsedenditxoak ere hartzen dituzte, argazkian agertzen den *Pedro Ezkurak* adibidez.

izen propioak

■ **Urri Urizar, 22**, AEDk antolatzen dituen haur udalekuen arduradun berria. Urri arrasatearra da eta Magisteritza ikasketak Donostian burutu zituen. Iban Arana ordeztuko du. Orain arte begirale gisa aritu izan da udalekuetan.

■ **Rafa Agirre, 49**, arrasatearra Eskoriatzako Gorosari Abesbatzako lehendakari berria da, Jon Ander Juldain ordezkatzuz. Izendapena azken batzar orokorrean jaso zuten, hilabete honetan. Rafak, Maisu nazional ikasketak burutu zituen eta Eskola Politeknikoko irakaslea da azken 20 urteetan.

■ **Amaia Jauregi, 35**, arrasatearra, Drogomenpekotasunaren prebentziorako zentruko administratibo berria. Amaiak batxilergo ikasketak burutu zituen, hamaika urtez AEKko irakasle izan eta beste hiru urtez Erdi AEK euskaltegiko arduraduna. Hamar urtez bulego batean ere lanean aritua.

80 lagun elkartu ziren igandean, **Besaide Mendizale Elkartea** antolatutako irteeran. Elurretan hasi, Aiako Haitzak zeharkatu, eta Aritxulegitik Oihartzunera hurbildu ziren. Bazkaria Astigarragako Petritegi sagardotegian egin zuten, eta Arrasatera bueltan, igerra ere igertzen zitzaizen batzuei nahi beste sagardo edateak eragiten duen umore ona!



“**Jaki izoztuen boutique**” edo antzerako deitura aproposa izango litzateke *Iparfres* izenarekin Okendo kalean ireki duten dendarentzat. Izan ere, era guztietako jaki izoztuak aurki daitezke bertan: arrainak, barazkiak, pastelak...Lau neskak dihardute lanean, argazkiko Elena, Maribi eta Susana, eta baita agertzen ez den Esti ere.

PUB HAIZEA



BRANKA
jatetxea

Eguneko menua eta karta

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

Auzitegia lortzeko auzitara jo?

Arrasateko Udala ez da Bake Epaitegiak konformatzen

Espainiako Parlamentuak epaitegien antolaketa berria arautzen duen legea onartu ondoren Arrasateko Barruti Epaitegia Bake Epaitegi bilakatu da, lehen zituen ahalbide asko galduz. Lege berri honen arabera Bergaran lehen instantziako lau epaitegi jarri dira Deba Garaian, Zumarraga eta Legazpian sor daitezkeen auziak bideratzeko. Arrasateko Udalak, hau ikusirik, herrirako Lehen Instantziako epaitegia eskatzea erabaki du, herriaren etorkizunerako onuragarri izango delakoan.



Erregistro Zibila izango da Bake Epaitegiak izango duen zerbitzutako bat.

Arrazoi ezberdinak direla medio

Lehen instantziako epaitegia eskatzerako orduan, Arrasateko Udalak arrazoi ugari izan ditu kontutan. Lehenik justizia herriarengandik ahalik eta hurbilen egon behar duelako erizpidea hartu du. Hau da, epaitegia Arrasaten izanik, justizia arrasatearrengandik hurbilago egongo litzateke.

Arrasate bestalde, 26.000 biztanlerekin Gipuzkoako boskarren herri handiena da industri ekoizpen handiarekin, Kooperatiben aldetik batik bat. Honez gain, Lan Kide Aurrezkiaren egoitza nagusia herrian dago, Lagun Aro aseguru etxearekin batera. Iharduera ekonomiko eta industrial honek epaitegian lan handia sortzen du. Ezin ahaztuko ditugu herriko hiru ospitaleak. Santa Agedako eritetxeetako gaisoek esaterako, sei hilabetetik behin epaitegira joan beharra dute, bertan segitu

behar duten ala ez juezak erabaki dezan. Gaiso hauek orain arte Arrasateko epaitegira etortzen ziren, baina bertako epaileak ahalmen hau galdutakoan, Bergarara jo behar dute.

Honez gain, kontutan izatekoa da iaz Bergarako epaitegian tramitatu ziren auzien %29a Arrasate ingurukoak izan zirela. Portzentaia hau aurten gehitu egingo delakoan dau-

Bergarako epailariak arazoak ikusten ditu Arrasatek egindako eskaeran

de, kontutan izanik jadanik Eibar inguruko auziak ez direla Bergarara etorriko eta, ondorioz, Bergarako epaitegian Arrasatek izango duen pisua gehituz, auzien %60a Leintz

bailarakoak izatea espero delarik.

Jose Santiago Torres, Bergarako epailari gazteak ez ditu gauzak hain argi ikusten. Orain arte arazoak egon badira zerbitzu mailan arazo horiek areagotu baino ez lirakeelako egingo juez bakarreko Lehen Instantziako auzitegi bakarra jarriko baltiz. Horren aurrean Bergarak laster izango dituen hiru epaileek askoz ere zerbitzu azkarragoa eta hobea emango dute haren ustetan. Arazo hau aurrikusirik, Arrasateko Udalak bi epaitegi ekartzea ere eska dezake.

Emango diren pausuak

Lehen instantziako epaitegia lortzeko zenbait pausu eman ditu jadanik Udalak. Edonola ere, nahiko berandu dabilzala onartzen dute. Alkateak adierazi digunez, epaitegia bake epaitegi bihur zitekeela jakin arren, orain gutxi arte ez dira ezer egiten hasi, beharbada arazoa konpontzeko denbora bazegoela pentsatu zutelako. Lehen Instantziako Epaitegia lortzeko, joan den astean harrasateko Alkatea, Xabier Zubizarreta eta Udaleko Idazkaria, Jose Mari Erafia, Madrilera joan ziren, Arrasatek duen nahi bera duten beste zenbait udal ordezkarekin biltzeko. Bilera horretan parte hartu zuten Udalek Justizia Ministrariari Udalen nahia azalduz instantzia bana eta herri bakoitzeko egoera azaltzen duen txosten bana luzatu zizkieten. Ministrariari bi hilabetetako epea eman diote erantzuteko. Edonola

ere, Arrasateko Udalak auzia jar dezake, hau da bide kontentziosotik jo, bere eskaria lortu ahal izateko. Hain zuzen ere, ostiral honetan Arrasateko Udalak plenoa burutuko

du azken bide hau aztertzeko.

Etorkizunerako onuragarri

Alkatearen ustez, nahiz eta Lehen Instantziako Epaitegirik lortu ez, Arrasateko Udalaren ahalegin hau etorkizunean onuragarri izan daiteke, legeak aldatzean, Arrasatek gaur egun egiten duen eskaera kontutan izan bait daiteke. Arrasateren eskaera Deba Garaiko Udal Elkar-teak onetsi du. Arrasaterako Lehen Instantziako Epaitegia eskatzeaz gain, Bergararako Erantzunkizun Penaleko Epaitegia eskatu du Man-komunitateak eta iturri onetik jakin izan dugunez, nahi hau bete egingo da.



Begonia Mugika, Arrasateko epailea

Bake Epaitegian geratu

Joan den urteko abenduaren 28an epaitegiak arautzen dituen lege berria indarrean jartzean, Arrasateko Barruti Epaitegia Bake Epaitegi bilakatu zen, era honetan lehen zituen zenbait konpetentzia galduz.

Orain arte izan dugun Barruti Epaitegiak, Aretxabaleta, Eskoria-tza, Oñati, Gatzaga eta Arrasaten gerta zitezkeen zenbait auzi kon-pontzeko gaitasuna zuen. Bake Epaitegia berriz, Arrasateko zenbait auziz bakarrik arduratuko da. Barruti epaitegiak, lau betebeharrak nagusi zituen, Erregistro Zibila, Erantzunkizun zibileko juizioak, Erantzunkizun penaleko juizioak eta Eshortu deritzanak. Erregistro Zibilean izen-emateak orokorrean, heriotzak, jaiotzak, ezkontzak etab. jasotzeaz gain, beste zenbait espe-

diente bideratzen ziren, izen aldaketak, akats-zuzenketak, haurren tutelak, etab. Bake epaitegiak Erregistro zibila izaten segitzen du, baina zenbait ahalbide galduz, esaterako ezkontza arazoetan, auzia jakin arazi baino ezin dezake egin.

Erantzunkizun zibil eta penaleko juizioak ere izango dira Bake Epaitegian, baina garrantzi gabeko auziak baino ez dira ikusiko. Barruti Epaitegian juizio zibilak bi motatakoak izan zitezkeen, hitzezkoak, 50.000 pta. artekoak eta zirkulazioari zegozkion guztiak muga gabe eta kogniziokoak deritzanak, 500.000 artekoak. Erantzunkizun penaleko juizioak zirkulazio arazoei zegozkien gehien bat. Bake Epaitegian burutuko diren juizio penaletan berriz, iskanbilak, irainak eta antzeko auziak konponduko dira, baina beti ere lesio fisikorik egon ez denean eta

juizio zibiletan 5.000 pta. gainditzen ez duten auziak.

Eshortuak beste epaitegi batzuren aginduei deitzen zaie, eta lehengo epaitegian eta oraingoan berdinak izaten segitzen dute.

Aldaketa garrantzitsua epaileari dagokiona da. Bake epaitegian, epaile gisa arituko denak, ez du zertan epaile edota zuzenbidean lizentziatua izan behar. Epaitegi hau, udaletxearen ardurapean egongo da, hau da, Udalak ordaindu beharko du lokalaren alokairua, etab., eta epailea izendatu.

Arrasateren kasuan, epailea orain arte Begonia Mugika izan da eta 1982tik aurrera aritu izan da. Epaitegia Bake Epaitegi bihurtzean, Begonia bertatik alde egiteko asmoa agertu du, nahiz eta beste destino bat aurkitu arte bertan lanean segituko duen.

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate

Lagunak Oro Lagun Aron



Enpresakoak

Ondasunetakoak

Pertsonalak

Nekazaritzakoak

Lagun Aro Aseguruetan gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiei zerbitzu onena emateko asmoz.

Lagun Aron poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

Lagun Aro Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruen Elkarteko partaide bezala.

LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Lan Kide Aurrezkoa Taldekoa



Juen zan astien hil jaku

Txomin Iria (Kartxel), Gaartzako kontu-kontatzaile fiñe

Estepan Plazaola eta J.M. Garai

“Kartxel dozue horretarako aproposa, harek Gaartzako kontu pilla bat kontauko dotzue” esan euskun Josu Otadui “Famauen ahotik” asteroko gure artikulotxorako persona seiñalaurik ezauketan auen preguntau gutzenien. Josuk berak lagundute, dizienbreko atsalde hotz baten alkartu giñen kartxeleko sukaldien Txomin eta Jabier bere semiaz, Sebastianak ataratako kafe berue aurrien gaukela. Ustie etzan ustel izen. Barre-karkaxatan euki gintuen bi orduak ez dittugu sekule ahaztuko.

Bañe hori baiño haundixaurik pe jakin gauen, Txomiñek halako kontuok asko eta asko eskribidute aukela. Hori zala-ta gure txokotxue baiño gehixau eskeiñi biher gutzela eta “barriro etorriko ga” esanda aldendu giñen Kartxeletik. Bañe berriro juen aurretik, Josuk berak emon euskun barri tristie juen zan astien: “Txomin hil ddok”. Txominekin kontu-kontatzaile haundi bat juen jaku.

Hona ba hemen bera bizi zala ein gure gutzen homenajetxue, berak kontau eta eskribirutakuetatik gutxi batzuk Arrasate Press leiruten dozuenon gozarri.

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1. Tfnoa: 79 23 18 ARRASATE

ZUBIZARRETA
TAILERRAK




Gipuzkoa, Etorbidea 22,
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

Bizitzie

Txomin Iria Gaartzako "Kartxel" baserriaren jaixoa zen 1910ien, dizienbrien 20xen. Xei anai-arrebatatik hirugarrena. Hamabi urterarte auzoko eskolan ibilli eta hamabost urteaz Zerrajerako tommillerixan hasi zan lanien. Berrogetamar urte luzetan jardungo auen bertan.

Leiruten afizifio haundixe aukena eta buru-argikue, bere denporako gertakizun politiko eta sozial mordo baten gomutie auken. Fabrikako eta baserriko lanak isten eutzien denpora apurre periodikue leiruten edo lagunekin tertulixan pasetan auen.

Jubilau ta gero, 1982 aldera, Joxe Letonak eskatute, berak bizi eta entzundako Gaartzako pasadizuek eskribiruten hasi zan, koleziño politte moldauaz. Ointsuau be jarraitu dau kontu barri banaka batzuk papeliien jarten. Hill honen 15ien juen jaku.



Garaartzako kontuek, Txominen ahotik

Sotero republika denporan alkate

Republikiek triumfau auenien, demokrazia bihe zala eta auzokuek eurak elejiru zeixiela alkatie. Iñok etxuan jarri gure eta ba, aurretik Leandro Abarrategi zuan auzo alkate eta gure jua ba gizon itxurezko bat ipintie, Patxiko Iturralde ero. Bestiek barre eitteatik ba Sotero, eta Sotero proklamau zuan republikako hurrengo batzarrien alkate. Ipinu jutzien medallie, republikanuen banderiaz eta Sotero alkate.

Felix Maixuena eta beste batzuk, zelebrau eifñ bihe zala hori eta auzoko danak kantuen juen zittuan, diskursue eifñ biher auela Ugaldenien eta.

Jaso juek mahai gañera eta orduen be ba, betiko moruen Garagartza eta Sta Ageda betik burruken, harrike eta bata eta bestie. Ekin zanien diskursuoi, berba bi eifñ jittuan bakarrik: "Garagarsa y

Santa Aguera, estaros uniros!"

Ondiokan etxok jakin iñok, Estados Unidos ero batzeko esan gure auen. Danak txalo eifñ, mahaittik jetsi juen, txistue jo eta aurrera. Hogetalau ordu eifñ jittuan alkate.

Baxabei fraillie etxera eskien

Denpora baten fraille asko ibiltten zittuan eskien. Baxabe bera etzuan elixarakue eta behin jo juek atie, urten jok eta fraillie. Borondatie emuteko eta hau eta bestie, goittik behera beiketan jutzek eta: "Kaxintte jatsi hai hona, hemen jan bat, sotana haundi bateaz, egundoko erresaixuaz ta aber zer biedauen honek, etorri hai hona!"

Lotsatu dok Frantziskanuoi eta buelta eifñde bajoiek plazan harutze eta orduen, "Pintto, jarreitu horri, jarreitu



ARAMBURU
COTEMAR

garraio agentzia

Zaldizpe 3, Tfnoak: 79 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

TALLERES AGA,
S.A

Zerreilgintza aratzeko gaiak

Legarre pabilo Industrialia
Tfnoa: 79 02 22
ARRASATE

horri. " Txau, txau, txau...Frailioi han jabillan sotana puzketan bat apurtuko ete eutzen atzera begire. Begiretu eittendok, begiretu!

Baxabe elixan dirue batzen

Baxabe etzuan elixara jueten, baiñe gizon fiñe zuan auzoko ardurak beteten. Beste erozein letxe, berai txandie toketan jakonien, danba jueten zuan elixara. Bexperetara jueten zuan mundu guztie eta maiordomuek dirue batu biher izeten juan. Orduen epokan garbantziek domeketan bakarrik jaten zittuan eta ba orduentxe iguel tripakarie eifñde eta bexperetara juendakuen erdi lo. Berai tokau jakonien, korure juen eta jentie halan ikusi auenien, ra, ra, ra, ra.. eraifñ jutzan dirue batzeko ontzixorri eta: " Bea mutillak gurebozue bota, hau abariendako dok eh !

Beste danak batien San Antoniondako bestien San Inaziondako eta harek bere txandie allegau zanien: "Bota gurozuenok, hau abariendako dok ."

Harek bere ustie klaru itxi juan.



Baxabe Somorrostron mifetan

Baxabe mifetan ibili zuan Somorrostron eta han, esaten juen, emun eu-

tziela taketazon bat txixe eitten auela. Itxurie, txabolako ate zulotik, kanpora urten barik, txixe eitten hasi zuan eta da ! pitilifien.

Guardixie montetan juen, jentiek bere eginkizunek txabola inguruen ez zeixen eifñ eta gau bakotxien bat ibiltzen zuan guardixie eitten, garbittasun apur bat zainketaarren eta holakon baten emun biher izen jutzien.

Gero seme-alabaik etxuan izen eta haren kulpe eitten juen.

Baxabe eta Kaxintto, ilustrau guran

Baxabek bajakixan erderaz baiñe analfabetue zuan, etxakixan leiruten eta Atanon aittek leiruten bai baiñe erderaik ez eta periodikue bixen artien erosten juen. Ugaldera juen eta erdiko bana eraten juen, eukien beste. Gero periodikue erdibana hartu, jarri burdi gaitien bixek eta Atanon aittek, Kaxinttok, ra, ra, ra... leiruten juan eta Baxabek : "txoifñ, txoifñ, txoifñ, leirik atzer". Ra, ra, ra... leiruten juan eta, "bai ondo jak, alemanak abanzau juek, jarreittu"■

ESAQUERAC

Sotero da Gartsaco, mutill bat

Orduco denporetan, gartsan basan mutill onbat, baiñe apurbat eraten euenien, sacar samarra san, da taberman sarritten Soteroi, gobai eraitteutsen, da egun-baten Murrisen taberman dasela Soteroi asarratu erautsen, da esautsen mutillorri: *Suenienbe pasausuan i jaiso intsenien Ama librau da echie catietu.*

Sotero da gaste biur bat

Gartsan basan denpora artan mutico biur oquerbat, eseuen gause susenic eitten, dana oquerquerisie san da. Soteroi be aundisec eitteutsen da egun baten eutsen jugada charbat da Sotero berai begire jarritte esautsen: *Ic estauquec culpeic, adarreco gatxa dauquec eta.*

Gartsara escontslas etorriteko gison baten esaquerie

Lenengoco Europaco guerratien, Alemanoc gogor ebitsen Frantsie

artu bicuelata. Orduen etsan entsuten besteic, Caiser gora da Caiser bera, da Fransesoc larri, da Gartsan bisisan denpora artan escontsas canpotic etorritte, gison bat da onec au esan euen Caiserreaittic. A *Caiser, Caiser tonto aundiso i nire moduen bequi canpoco echera juetie ser dan esintsaque mogiruco. ¡Or conponduco aue!*

(Esakerok "Gartsako contuec", kontu-koleziñotxotik kopixau ditugu. Kontuok Txomiñek eskribiru zittuen Joxe Letonaren eraginez.)

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

Eslu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

Parques y Jardines S. A.

**PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA**

**LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR**

**LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ**

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

“EHU oraingoz Euskal Herriaren aurka”

J. A. Mendizabal, “Tonino”k, Cum Laude eskuratu berri

Jose Antoni Mendizabal “Tonino” arrasatearra, azken bost urteotan Leioako Informazio Zientzien fakultatean dugu irakasle. Hilabete honetan ekonomiaren inguruan burutu duen tesi doktoralean Cum Laude atera izan du. Solasaldi atseginean, tesiaren eta unibertsitatearen inguruko berri ugari azaldu zizkigun.



Jose Antonio Mendizabal “Tonino”

— Arrasate Press: Tesia egiteko zein gai erabili duzu?

— Tonino: Gaur egun langilegoaren egoera eta merkatuaren egoera aldatu egin dira. Batetik lehen patronala eta bestetik langilegoa aurkituko genituen, gaur egun langilego hori zatitu egin da. Horrela langabetuak, teknologia-garatuak, krisian dauden enpresetako langileak... aurkituko ditugu. Zatiketa horren barnean nik oso interesgarri ikusi nuen sektore ahul bat aztertzea, Elkarte Anonimo Laboralak, hain zuzen. Enpresa hauek krisia jasan ondoren egoera txarrean daude. Arazo ugari dute, produktu txarrak, pasibo handia, krisi sozial pilatueta beste zenbait.

— Tesiari egiterako orduan gaia aukeratzea zaila omen da, zuk hasieratik pentsatu zenuen gai hori?

— Bai, arrazoi asko zirela medio, aukeratu nuen gaia. Ni Arrasatekoa izanik, kooperatibak sortu zireneko eztabaida ezagutu nuen. Kapitalismoaren aurka egiteko kooperatibek balio zezaketen... Edonola ere bage-nekien kooperatiben proiektua oso mugatua zela. Eztabaida hori bazegoen eta nik bizi izan nuen.

Bestalde, errefuxiatu politikoa izan nintzen eta etortzerakoan LABeko langileekin izan nituen harremanak, Bizkaian sindikatu horren aholkulari ekonomista izan nintzen eta. Une hartan krisian zeuden enpresetan

EALak sortzea pentsatu zen eta beraz, esperientzia hasieratik ezagutu nuen.

Horrez gain, gaiak beste xarma bat ere bazuen, inork ez bait du gai honen inguruan ikerketarik egin. Beraz, sortzailea izan behar duzu.

— Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatean diharduzu lanean, zein arazo ikusten dizkiozu?

— Nire ustez, E. H. U. Euskal Herriaren alde lan egiten duen unibertsitatea izan beharrean, oraindik Euskal Herriaren aurka dagoen unibertsitatea dugu. Unibertsitatea, Francoren garaian zeuden katedrati-koen esku dago. Garai batean beraiek zituzten gizartea birsortzeko tresnak eta azken finean euren neurriko gizartea egin dute. Hiru arazo nagusi aipatuko nituzke.

“Euskal Herrian esperientzia soziala, ekonomikoa eta sindikala oso aberatsak dira”

Demokratizazioa, gizarteari eman behar diogun ekarpena eta euskararen egoera.

Demokraziarik ez dago unibertsitatean. Demokrati-zazio horrek kuestionatu egin bait dezake botere fakti-koen boterea.

Bestalde, guk jakin bada-kigu EHan gaudela, baina botere faktiko horiek EHU Murtzian egonik egin zezaketenaren antzekoa egin nahi dute. Euskararen aurka izu-garrizko militanteak dira.

Analfabetoak izanik, ez bait dute euskara ezagutzen, Espainiako kultura goraiatzeko az gain, analfabetismo hori goraiatzen dute.

Azkenik, unibertsitatea gizarteak dituen arazoak konpontzeko tresna izan behar du. Dialektika egon behar du. Pentsaera sozial, ekonomiko eta politikoa garatu behar ditugu gizarteak dituen kontraesanak gainditzeko.

— Informazio Zientzien Fakultatean zaudenetik, zer nolako bilakaera izan du Fakultateak?

irakasle zein ikasleen alde-tik. Ondorioz, unibertsitate aurreko ikasketak gaindituta izan arren, jende guztiak ezin izango du unibertsitate-ra joan, eta hori normalizat jo-tzen da.

— Nola baloratuko ze-nuke fakultatean ematen den irakaskuntza?

— Beno, proiektu batean gaude eta kontutan izan be-har dugu arazo ugari ditugu-la. Ikasgaiak euskaraz eman beharra laguntzarik gabe, soldata txikiak eta ondorioz sortzen den relax-ak, etab. Hala ere, EHU estatu mailan oso ondo ikusia dago, baina denon irakaskuntza txarra bada, gurea ere bai. Arazorik nagusiena irakasleok orain-dik ere, transmisore izaten segitzea da eta sistema hori oso txarra da.

— Gai oso berezituak eman behar dira, ala kultu-ra orokorragoa?

— Gaur egun oso modan dago irakaskuntzak berezi-tua izan behar duela esatea gizartean. Baina horrek gi-zartea pobretu baino ez du egiten. Guk diziplina anitze-ko kultura eman beharra dugu. Gero eta gehiago ema-ten bait dira aldaketa tekno-logikoak, sozialak etab. eta pertsonak aldaketa horietara moldatzeko gaitasuna izan behar du.



90 denboraldirako 16 txirrindulariz osatutako taldea

Lagun Aro-Fagor

16 txirrindulari, 4.600.000 pta.ko aurrekontuaz

1990eko urtarrilaren 13an aurkeztu zen aurtengo denboraldiko Lagun Aro-Fagor taldea, Igeldoko Txoko-berri jatetxean. Bertan izan genituen Jaime Ugarte (Euskal Federazioko lehendakaria), Antxon Garcia (Gipuzkoako Federazioaren lehendakaria), Gorka Knor (Lagun Aroko marketing arduraduna) eta Javier Garcia (Dorletako ama taldearen lehendakaria).

Dagoeneko hirugarren denboraldia beteko dute bigarren mailako afizionatu ekipoarekin, eta oraingo honetan 4.600.000 pta.ko aurrekontua onartu da taldearentzat.

Guztira 16 txirrindulari, 19 eta 20 urtekoak: Jon Odriozola eta Jose Luis Fernandez ofatiarrak; Josu Roteta eta Bittor San Jose arrasatearrak; Pello Errasti antzuolarra; Mikel Leturia eta Iñaki Odriozola bergarrak; Mutrikutik Aitor Uranga,

Asier Flores eta Jose Albizu; Oskar Ibarguren azpeitiarra; Josetxo Irastorza beasaindarra; Jon Albizu legazpiarra; Iker Azurmendi pasaitarra; eta bukatzeko, Jon Garmendia

eta Oskar Garcia itsasondoarrak.

Horiatariko zortzi Gipuzkoako gazte selekzioarekin ari izan dira 89an, eta norbaitzuk azpimarratzekotan, Jon Odriozola eta Jose Luis Fernandez aipatu behar, biek ere afizionatu mailan bigarren denboraldia burutuko dutelarik.

Taldearen arduraduna Javier Garcia dugu, eta zuzendaria Antxon Iraeta. Mediku lanetan Xabin Padilla. Laguntzailea Josu Estebez, eta prestatzaile fisikoa Jose Antonio Cuesta.

Euskadi mailako probetan aritzeaz gain (Lehendakari, Txapeldun, etab. bezalako txapelketak), Zamora, Jaen, Palencia eta Toledoko itzulieta ere parte hartzeko asmoa erakutsi dute.

Lagun Aro-Fagorrekoek etsai gogorrek aurkituko dituzte Gurelesa, Orbea, Branik...taldeetan. 1990 denboraldiko helburu nagusia gazteei esperientzia ematea, batez ere hurrengo denboraldiari begira, orduan helduko bait zaie garaia txirrindulariei benetako balioa erakusteko.



Urtarrilaren 13an egindako aurkezpena

**E D E L
TAPIZTEGIA**

*Gortina
Alfonbra
Koltza*

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,
Erakusketa: Sancho Abarca 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



podiuma

**Juan Mari Errasti,
17 denboraldi eta gero ...**

Tipo jatorra da Juan Mari. Orain bi aste albiste izan genuen 35 urteko mutil hau, 17 denboralditan eskubaloian aritu ondoren, ondo merezitako omenaldia eskaini zitzaiolako.

Aspaldi ekin zion jokatzeari, hamazazpi urte zituela. "EPPn ikasten nengoela hasi nintzen eskubaloian, eta hurrengo urtean Arrasateko jubenetara deitu zidaten. Garai haietan, gerora internazionalak izan ziren jokalarien aurka aritu nintzen: Novoa, Uria..."

Dena den, Arrasateko taldea desagertu eta Salterainekin batera UDARA 'emigratu' beharrean aurkitu zen. "Hiru denboraldi eman nituen han, baina beti ere Arrasatera itzultzeko irrikaz. Halako batean, koadrilako lagunak elkartu eta berriaz ere Eskubaloia Taldea sortu genuen. Hirugarren maila probintzian hasi ginen orduan Herro, Garai, Esparza..."

Aspaldiko kontuak, e Juan Mari? Aurreko denboraldia amaitzean, eskubaloia bertan behera uztea erabaki zuen. Eraman ere makina bat oroitzen eramango ditu berarekin. "Momentu txarrak ahaztu egiten dituzu, une onak, politikak gordetzeko. Probintzietatik nazionalera igo ginenean, joan zen denboraldian ere igotzea lortu genuenean, hala-koetz oroitzen naiz orain".

Juan Mari ondo ikusten du gaur egungo taldea, sendo. "Denboraldi bikaina burutzen ari dira; nahiz eta etsai gogorrak izan, horrela segituz doa igoeraren fasera hel daitezke".



Agian utopikoa izan daiteke hori, lehen mailan gastuak disparatu egiten bait dira, batez ere egin behar diren bidaiak medio. "Baina ze demontre. Arrasaten badago dirua: Lan Kide Aurrekia Kutxa, Kooperatiba, Fagorrek ere dirutza mordoa gastatu izan du ziklismoan. Halere, gaur egun kirol batean ere ez dago Arrasaten goi mailako talderik. Igoera eskuratuz gero, laguntza eman beharko zigutelakoan nago".

Jokalaria gazteak eta Arrasateko zalegoa, euren esku dago orain eskubaloien etorkizuna. "Zaletuei zera eskatuko nieke, taldea zertxobait gehiago bultzatzeko, oso hotzak dira eta. Jokalari gazteei segitzeko lanean, fundamentu onak erakusten dituzte eta; hori bai, talde garrantzitsuen bat bila etorri gero, hemendik irtetzeko aholkatuko nieke, sikiera goi mailako jokalariekin entrenatzen ikasiko lukete".

Hamazazpi, hamazazpi urte eta gero heldu zaio agurra emateko garaia. Zorte on, 'Pandereta'.

■ **Mondrak enpate**

Ligako 20. ihardunaldian, Tolosa taldea hurbildu zen Atxabalpera. Etxeberriak lortutako golari esker aurreratu ziren tolosarrak markagailuan, baina 48. minutuan Gordobilek lortu zuen berdinetaren gola. Datorren igandean, Alaves taldearen aurkako neurketa Mendizorroztan.

■ **Pedruskok irabazi**

1-0 irabazi zion San Andreseko taldeak Ariznabarrari. Horrenbestez, sailkapeneko 9. postuan aurkitzen ditugu, 15 puntu eta 3 negatiboz.

■ **Saskian bikain**


Pasa den asteburuan, Arrasate Kirolak saskibaloia taldeak ligako bigarren garaipena lortu zuen Cantabriaren aurka. Partidu amaieran, 97-84 markagailuan. Dena den, beranduegi heldu zaigu emaitza positiboa, gure taldeak A-2an ari behar izango bait dira mailari eusteko.

■ **Eskubaloian bai**

17-19ko markagailuaz nagusitu zen Arrasate Kirolak eskubaloia taldea Usurbilen. Garaipen berri honen ondorioz, sailkapenaren bigarren postuan ditugu gure jokalariak, eta datorren asteburuan aukera ona izango dute, Musakolako kiroldegian BKL-CAF taldearen aurka.

■ **Arrasate Kirolak-ek 9; Bera-Berak 29**

Astindu ederra eman zion Donostiako Bera-bera taldeak Arrasate Kirolak rugby taldeari. Dena den, Bera-bera liderra dela kontutan izanik, ez da emaitza txar-txarra ere.



OKENDO

KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda !

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

Oyster band, zubiak eta McLuhanen herrixka

Oyster Band Amaian. Emanaldi borobila. Indartsua, atsegina, freskoa. Eta argigarria ere bai, gogoeta sakonagoak eragiten dituzten horietakoa.

Hura ez zen folka izan. Ez folk soila, behintzat. Egia da soinu txikia eta bibolina han zeudela, baina han zeuden ere kitarrak eta bateria. Guztien artean sortzen zuten musikak tradizioari bezainbat zor zion musika-mota izatetik musika-hizkuntza izatera iritsi den rockari. Testua aintzinakoa zen, baina gaurko hizkuntza emana izan zelako guztiz ulergarria suertatu zitzaigun. Inongo konplexurik gabe, doinu tradizionalak edo Phil Ochs zaharra gaurko hizkuntzara itzuli zituzten bezalaxe New Order-en musika ere berea zela erakutsi zuten, garbizale-

tasuna antzua izan daitekeela eta mestizaia, berriz, oparoa. Zubien premia aldarrikatu zuten, musika zatikatzen duten etiketen gainetik eraiki beharreko zubien premia.

Areago. Mundua, McLuhanek aspaldian iragarri zuen bezala guztion herriska bateratu bilakatzen ari zaigu, komunikabideak parejerik eta arazorik urrutikoenak hurbiltzen ari zaizkigun heinean. Mundu zabalean dagoen musikaren aniztasunaz jabetzen hasi berriak gara, inperiotik datorrena ez da jadanik dugun aukera bakarra, handikoa eta hemendikoa nahastetik etor daitezke aberastasuna eta berrikuntza.

Baina euskaldunok atzetik gabil-tza kontu honetan. Gure artean, oro har, tradizioa gehiegizko errespetuz erabili da, ez da behar adina gaurko-

tu, ez da gazteengana hurbildu. Eta hauek bizkarra eman diote, beraien arazoak rockaren hizkuntzak hobeto adierazten zituelako.

Zubiak falta ditugu. Oskorrik La Pollaren kanturen bat euskaratzen duenean edota Hertzainak Azkueren kantutegia astintzen duenean, orduan hasiak izango gara zubigintzan.

Oyster Banden emanaldian zehar amets bat ibili nuen buruan bueltaka. Eskenatokian Joseba Tapiaren trikitia, "Axuri beltza", Laberie eta Barrikada nahasten zireneko akelarre rockeroa, eta entzutokian mundu zabaleko jendez osatutako entzulegoa dantzan, ertz batean McLuhanek irribarre egiten zuen bitartean. Txarrena, beti bezala, esnatzea izan zen.

Mikel Irizar

BEHERAPENAK
MANGO
lotsagabe jazteko
 Postas 5, Tfnoa: 23 04 48 GASTEIZ

BASABE JATETXEA
 Menu eta afariak
 Boda eta banketeak
ARETXABALETAK


Zubiareneta
OSO GAUZA BEREZIAK
 Zerkaosteta 8

ARTE LENIZ
 koadro eta moldurak
 Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

URRATS
AHOLKULARITZA
 CARIBAI 3,
 Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE

"PAL"
 burdindegia,
 brikolage
 eta tresneria
 Uribarri etorbidea 3,
 Tfnoa: 79 31 99

ARRASATE PRESS
 79 71 64



AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES

IBILGAILU-MOTA GUSTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

1984 Etorbidea 2, Tfnoa: 79 25 ARRASATE

SOKOA

Zeharkale estalia Arrasate

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



URONDO elektrizitatea.

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektroiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal Inprimakiak
- Bulegoko materiala

Fruta pastela (Plum-cake)

Gabonetako jaiak direla eta aukera izan dugu Barajuengo Luis Altuna Eguren marianistarekin kontaktatzeko.


Orain dela 56 urte "Oruna Nagusi" baserrian jaioa, gaur egun Zaragozako kolejioan dago sukaldari, egunean 1.200 laguni jaten emanez. Aurretik Madril, Valentzia, Eskoriatza, Donostia eta Gasteizko kolejioetan sukaldari ibilia.

Nahiz eta ikastaro batzuk egin, adibidez Donostiako "Garagorri" gozotegian, bere burua autodidaktatzat jotzen du.

Sukaldaritza barruan reposteria du gogokoan, eta honen adierazgarri da dakarkizuegun errezeta.

Fruta pastela

Osagaiak: 250 gramo azukre
250 g. gurin
250 g. irin
250 g. Corintoko mahaspasa



150 g. intxaur zuritu
8 arraultza
Goilarakada bat hazkarri
Mahaspasak ronetan beraketan jartzen dira hiru ordutan.


Azukrea eta gurina nahastu egiten dira ore bihurtu arte. Ore honetara arraultzak binan-binan bota behar eta botatakoan ondo eragin.

Irina eta hazkarria ondo nahasten dira eta hauetatik 200 gramo aurrez eginda dagoen oreari gehitzen zaizkio. Beste 50 gramoak beraketan egon diren mahaspasa eta intxaurre-

kin nahastuko ditugu eta orera bota eta eragin.

Molde luzezka bat gurin eta irinez igurtziko dugu eta bertara ore a bota.


Aurrez labea bero-bero edukiko dugu, 200 gradu inguruan. Moldea sartu eta azpiko suarekin bakarrik eduki ondo jaso arte. Ondo jasota dagoenean azpiko sua itxungi eta azpikoa ixotu. Ondo egin arte eduki eta puntuan dagoen jakiteko, galtzorratz bat sartu barreneraino eta garbi ateraz gero, eginda dago.



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P.C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Urteak joan urteak etorri

Urte bete gehiago edo urte bete gutxiago? Zein ikuspegitik begiratzeko den, bata ala bestea aukeratu behar, noski; baina argi dagoena zera da: 25-26 urtetik gora ditugunok, badakigu geure gorputza beherakada geldiezinean hasia dela, beraz pittin bat zaharragoak garela.


Zahartze horrek, ordea, ez du kasu guztietan hondatzea esan nahi. Gure artean ere badira hainbat pertsona urte asko igaro ondoren oraindik "Forma fisiko" inbidigarri eta zoragarrian jarraitzen dutenak. Gizakion bihotzaren zahartzapena behin eta berriro izan da ikertua. Logikoa dirudi, urtebete zehar gutxi gorabehera 37.843.200 aldiz uzkuertzen den muskulua, 70 urteko bizitza batean 2.724.710.000 aldiz uzkuertu ondoren, nolabait hondatuta eta aldatua agertzea. Gaur egun, ordea, ikerketetan ikusi denez, urteak igaro



ondoren bihotzean agertzen diren aldaketak ez dira oso nabarmenak. Baina badira gaixotasun batzuk, arteriosklerosia adibidez, zahartze-prozesuan, natural bezala agertzen direnak, eta gaixotasun hauen ondorio bezala agertzen dira aldaketa ugari. Baina horrela ikusten ez badugu, hau da, gaixotasuna eta zahartzapena bi prozesu ezberdin bezala hartuz gero, oso aldaketa gutxi agertzen direla esan genezake.

Orain arte ditugun datuei begiratu, ariketa fisikoa erregulartasunez eginda eta bihotzeko koronari arterietan gaitzik agertu ez dadin neurriak hartzen badira, esan genezake ez dagoela batere arrazoirik 90 urtekin bihotzak 20 urte zituenean bezalako lana egiten ez jarraitzeko.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*



Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Ostarkutik Udalaizera

Aste honetan argitaratzea tokatzen zaigun artikulu honekin Urte Berri egunez Udalaizera mugitu zineten guztiok agurtu nahi zaituztegu eta bide batez hain atsegina den momentu bat puntan izatea denon joatearen lana dugunez, mila esker emutea.

Jakina da bestalde, zein den Urte Berri egunez puntaraino igoten animatzen den jendearen gorputzaldia eta horien estroposuek beti ere ahuntzen bati jar egiten badiote goitik beheruntz ere, ez dugu uste beharrezkoa denik Udalan Ertzaintzaren alkolemia kontrolik ipintzerik hori gaitzetzeko, batzuk esan duten moduan.

Egia izan liteke beharbada, egun horretako Udalaizale gehienak era



berean gaupaseroak direla, baina neurri bereko egia da horri esker sortzen dela sortzen den giroa. Egia izan litekeen moduan zenbait tabernarik nahi izango luketela bere

taberna bazterretan puntako jai giroa.

Dena den Arrasate Presseko txoko honetatik animatu nahi genuke jendea datorren urtean etxera joan eta oheratu beharrean, botak jantzi eta Udalaizteratu daitezela.

Alaitasuna, giroa, txanpaina eta turroia ziurtaturik dituzue oindittik eta hau irakurrik sinesten ez baduzue dena ere, argazkira begiratzetik baino ez duzue. Froga gisa botoi bat nahikoa da.

Bestalde Besaideko buru den Axerikin elkarrizketatu ginen eta deuseztatu egin zituen aurreko asteetan zehar bere destituzioaren gain entzundako zurrumurruak.

Hankaotz

JAKE-MATE

antzerki taldeak aurkezten du:

BARBARA


Haur antzerkia

Eguna: Urtarrilaren 27an
Lekua: Amaia antzokian
Ordua: Arratsaldeko 6etan

Arrasateko Udala



AE Elkoro



Zure antena txarto badabil, esaiguzu, konpondu egingo dizugul

Antena parabolikoak, indibidualak eta kolektiboak konpontzen espezialistak.

Magdalena 27,
Garibai 10,
Alfonso X 6,

Tfnoak: 79 18 86 eta 79 45 99 ARRASATE



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

Gorka

ILEAPAINDEGI
MIXTOA

Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoa: 79 96 80 eta 79 63 27
ARETXABALETA



I
R
A
T
I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

ARRASATE
PRESS

79 71 64



Ba zenekien?

* Arrasateko gazte talde batek "U" Skate-Pista egin dezala eskatu dio Udalari. Dirudienez, kirol honekiko zaletasuna gero eta handiagoa da Arrasaten. Ea lortzen den pista hori!!

* *Eta hi, zergatik hoa soldadutzara?* Hona hemen Euskadi eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluen slogana, soldadutzaren aurkako azkenengo kanpainan.

* Gutxi barru, bi jaialdi mundialak Arrasaten: otsailaren 3an "God Fathers" eta Martxoaren 4ean "Psychelic Furs"

Bekak

Azterrian ikasteko beka

– Grekerako ikasleak. Tesalonikako Unibertsitatean hizkuntza eta kultura grekoen udako ikastaroak egiteko beka. Epea: 90-02-08.

– Grezian espezializazio-ikasketak edo ikerketarako beka. Goi mailako titulodunentzat. Grekera hizkuntzaren ezaguera, frantseza edo ingelesa. Epea: 90-02-26.

– Irlandako Unibertsitateetan

ikasi edo Ikerketa Proiektuak egiteko beka. Lizentziatuak edo karreraren azkenengo kurtsoetako ikasleak. Ingeles hizkuntzaren ezaguera ona behar da. Epea: 90-03-01

Lehiaketak

* Lehiaketa: Artea eta Kirola. Modalitateak: logotipoak, argazkigintza, kartelak, eskultura edo zermika, pintura. Lanak aurkezteko epea: urtarrilaren 30a baino lehen.

* Eibarreko haratuzte jaietako Kartel-Lehiaketa. Saria 60.000 pta eta 15.000 ptatako akzesita. Lanak aurkezteko epea, otsailaren 2a baino lehen.

* Ume eta Gazte Literaturaren "Edelvives Saria". Gai librea. Sari bakarra: 1.000.000 pta. eta liburua argitaratzea. Lanak aurkezteko epea: martxoaren 1a baino lehen.

* Zine Amateur Lehiaketa. 2 sari: 100.000 eta 50.000 pta. Lanak aurkezteko epea: apirilaren 17a baino lehen.

* "1990 eta Martxoak 8" (Emakumearen Nazioarteko Eguna) Kartel-Lehiaketa (Donostia). Teknika librea. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 15a baino lehen.

**"Elche Hiria" Kartel-Lehiaketa.

Gaia: gure planeta, gure osasuna. Saria: 300.000 pta. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 20a baino lehen.

* Turismoa Sustatzeko Kartel Lehiaketa (Alicante). Saria: 150.000 eta 50.000 pta. bitartekoak. Lanak aurkezteko epea: 28a baino lehen.

* Ipuin, Esperientzia eta Txiste Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: ekainaren 30a baino lehen.

* "Prensa-Eskola" saria. Ikasle taldeei zuzendua. Lanak aurkezteko epea: apirilaren 20a baino lehen (BOE 89-12-19).

Aldi baterako lanak/Elkartrukeak


* Europako Ekonomi Elkarteko gazte langileen elkarturea. lanean diharduten 18 eta 28 urte bitarteko gazteentzat. 2 modalitate: iraupen laburra eta luzea.

* Txekoslovakia -ko 18 eta 30 urte bitarteko gazte langileekin 7 eguneko elkartrukea. 10 lagun gutxi gorabehera talde batentzako.

* Alemaniako merkatal eskola batekin ikasleen elkartrukea. 16 eta 18 urte bitartekoentzat. Deialdi hau ikastetxei zuzendua dago.

Informazio gehiago: Udaleko Gazte Zerbitzuan Tfnoa: 79 09 00

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA


KAJCI TABERNA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27

ENARA
OSAGIRRIAK



Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



ETXEBIZITZAK

- Errentan hartzeko etxabea edo merkatalokala bila gauzak sartzeko. Tfnoa: 79 94 00
- Jantzitako pisuan logela bila. Tfnoa: 49.14.53 (Jose Manuel), gaueko 8etatik 10etara.
- Pisua salgai Urriburu kalean. Tfnoa: 79 81 79
- Pisua salgai Udalpe kalean. Tfnoa: 983-39 41 90
- Pisua salgai J.L. Inarra kalean. Tfnoa: 79 20 03
- Pisu berri-berria Erguin kalean salgai. Gas naturala eta ur beroa, egongela, bi bainugela, sukalde ekipatua. Tfnoa: 79 19 96
- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Asteguntan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Neska behar da Bilbon pisua konpartitzeko. Tfnoa: 79 98 30
- Uribe auzoan aparkalekua alokatzen da. Dei 10etatik 11etara 79 69 59 tfnora.
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- Arrasaten etxebizitza amueblatua salgai. San Andres auzoa. Tfnoa: 79 28 30
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bi neskak tokia behar dugu Bilbon, pisu konpartituan. Deitu 79 26 62 tfnora.

LANA

- Emakume edo neska euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko kanak egiteko. Lan baldintza onak. Interesatuak dei dezala telefono honetara: 79 88 14, arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko neska euskalduna behar dugu. Tfnoa: 79.91.51. Deitu arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Etxeko lanak egiteko eta haurra zaintzeko neska behar dugu. Tfnoa: 79 54 04
- Umeak zaintzeko neska euskalduna behar da. Deitu 79 81 61 tfnora.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tfnoa: 79 97 52 (deitu goizetan, larunbat eta igandetan)
- Ikasle arduratsuak bulego edo antzekotan lan egingo luke. Tfnoa: 79 39 84 (arratsaldeko 6etatik 7etara)
- Edozein lan-mota egiteko prest: garbiketa, tabernak, dendak... Tfnoa: 79 4179 (Amaia)
- Disko-pub-kafetegietan esperientziadun kamarera lan egiteko prest. Itxura onekoa. Tfnoa: 79 70 41 (Teles)
- Umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (gautan eta asteburuetan) Tfnoa: 79 28 30
- Neska euskalduna O.H.O.ko hurrel klase pastikularrak emateko prest Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 79 64 82 telefonora.
- O.H.O.ko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 26 19 (Itziar)
- Neska edo andra euskalduna behar dugu etxeko lanak eta umeak zaintzeko. Etxea Uribe auzoan dago. 79 79 53 (Arantxa)

SALEROSKETAK

- Zure argazki-makinarentzako Panagor markako 200 mm-ko telea salgai. Diamentroa 62. Oso merkea. Tfnoa: 79 71 64
- Raider 2WD auto irrati-kontrolatua salgai, Challenger 250 irratiak. Baita bateriak eta beste, berri-berria. Tfnoa: 79 52 31. Iban 8etatik aurrera.
- 5 urtetik 9 urteko umeentzat bizikleta salgai BH markakoa, ia berria eta merkea. Tfnoa: 79 04 10. 6etatik aurrera.
- 4/4 neurriko bibolina salgai. Interesatuak deitu 76 52 15 tfnora.
- Narruzko jaka salgai. Ona eta merkea. 55 tailakoa ia berria 79 89 51 Tfnoa.
- Ebro M-140 kamioia SS-Y salgai txartela nazionalarekin. Interesatuak dei 81 01 61 Tfnoa.
- Saltzeko dauzkat Roland baxu amplifikadorea, Ovation baxua, Aquier baxua, Fender kitarra, Shure SM58 mikrofonoa eta foko bi mila watiokoa bakoitza. Deitu gaueko hamarretan. Ion 79 38 96
- Sonab markako amplifikadore-digitala salgai. Tfnoa: 79 29 09
- Akai markako pletina salgai. Tfnoa: 79 45 39
- Panagor markako zooma salgai, 55-225 mm-koa. Tfnoa: 79 29 09
- Bizikletak salgai. Akimoto GAC 15.000 pta. Luna GAC 20.000 pta. Berri berriak. Dei ezazue bulego orduetan (94) 658 20 12 Marian.
- Orbea "Deba" paseorako bizikleta. 5 pinioi. 8etatik aurrera, 79 99 82

ARRASATEN HILDAKOAK

Mari Carmen Fernandez Benitez.
Urtarrilaren 17an. 79 urte

Pedro Apraiz Zorrozuza.
Urtarrilaren 18an. 73 urte

Carmen Vitoria Unzue.
Urtarrilaren 21ean. 71 urte

Pascual Sopo Carmona.
Urtarrilaren 22an. 68 urte

Agustina Garmendia Oria.
Urtarrilaren 22an 68 urte

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

.....

.....

Arrasate pasealekua 3 bis, etxabea.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik



Eskola-kontuek

Eskolan Merzedarixetan ibilli nitzen bañe parbuluetan bakarrik zeatik gero gaixotu ein nitzen eta luzero egon nitzen eskolara juen barik. Ta gero, ba, gure aitek, 14 urte ta, zerbait ikesi biher nauela eta Ofetire instituturre bieldu. Dibididuten enekixen eta instituturre. Bañe nik dda! amorpropixue euki eta hiru urtiok ein nittuen behintzet.

Gero ein nauen karrerie, "por libre", pratikante, eta bi urte ein nittuen baten. Gero pasau zan serbizio sozialak ein barik naukela eta ez eustien tituluik emoten eta serbizio sozialok eitten nittuen bittartien aprobetxau nauen Panplonan matrona eitteko. Eta ha akabau ta segiruen hasi nitzuan lanien.

Lan asko

Orduko denporan ez auen matemidadeik ez Bitorixen ez Bilbon eta ifun be, Donostiera eruen biher zien eta orduen eitten gituen parto guztiek etxien. Eta lehenengo neuri deiketana eustien eta ondo baioen neuk eifi dde kitto bañe puxkat okertzen zanien, medikuei deiketana

Begoña Aranburu:
*Gerra osteko
mondrautarrei
mundura etorten
lagundu eutzen
andrie. (I)*

nutzen. Orduen auen Don Mariano Briones eta horrek asko balixo auen partuetarako eta ederki manejetan giñen bixok. Nik deiketana nutzenien bost miñutu baiño lehenau etorten zan.

Kondiziño txarretan

Ijittuenak, ijittuen partuek pe einde nau, han karruetan sartu, belauniko jarri, lurrien andrie, ta zelabaitt eindekue; txaboletan, kamaretan...

Gerra ostie zela zan, hau dana apurtute geratu zan eta orduen hasi zien famelixa osuek etorten eta bizi izeten zien ba zelabaitt, igual etxe baten lau famelixa "con derecho a cocina" ta hola. Partuek euki diitut izugarri txarrak pe bai; kontau medikuei bai ta "pues peor que en el tercer Mundo" esaten eusten, ta izen be halaxe. Zeatik, kamaran bizi, juen da han ezebez ez toallaik eta ezebez. Neu arifike etxera toallak eta umie batzeko zerbaitzuk erueten. Eta holakuek, ene! asko. Pentsaute be zela lana ein gauen!

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Plazentziako abadiak errez ententitzeko moduko ejenpluak jartzzen zittuan misterixoik zailenak esplikatzeko:

"Arrautzia ze da? gorringua, zuringua eta koskola, baiña dana da arrautza bat. Holako zerbaitt da Hirutasun Santuan misterixua be."

"Batzuk difue liburu onak eta txarrak, danetik leidu biha dala. Nik halakuei esango noskie perretxi-kuak jateko orduan be, onak eta txarrak, danetik jateko.

■■■■■■■

Kaietano Kareaga eibartarra herri-filosofixian jabe zan. Hona hemen haren esaera batzuk:

"Tontuan senideik hurrena, harua."

"Eztaukanan borondatia, hutsan hurrengua."

"Munduan bada gauza bat gutxiago daukanak gehixago daukanari emoten dotsana: lotsia"

"Munduan harrokerixa asko sor- tu dabena da espillua."

■■■■■■■

Medikuak gaixuai:

— Osatuko bazara burukantsazi- fuak alde batera laga bihaittuzu. Garbi esateko, burulanik eztozu egin bihar.

— Baiña nundik biziko naiz jau- na, nere bizibidia burulana da.

— Abogaua ere zara ala?

— Ez, pelukerua.

Oharra: "Zelebrequerixak" saileko pasadizo asko Juan San Martinen "Zirikadak" eta "Ezen- kadak" liburuetatik jaso ditut, beste asko "Eibar" aldizkarietik eta Jon Etxaideren "Pernando Plaentziarra" liburutik.

Juan Martin Elexpuru



EGIDO

Ordezko Piezak


Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pablola. Tfnoa: 79 62 11



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE



Beti Alai. Arrasate 1948

Gerra ostearen miseriak ezin izan zuten mondragoetarren musikarekiko grina ito. 1948a zen. Jai taldea ordurako bazezilen plazarik plaza eta irratiz irradi. Nahikoa ez, nonbait, eta *Beti Alai* bostekoa sortu zuten arrasatear gazte hauek. Ahotsen gardentasunari kitarra eta pianoaren majia erantsi zizkioten, Duke Ellingtonen pianoaren oihartzunak gure artera ailegatu balira

bezala. Baina *Beti Alai*koek abesti melodikoak eta rantxerak abestuko zituzten, taldeak iraun zuten laupabost urteetan zehar.

Zutik ezkerretik hasita *Oskar Azkonaga*, 23, baritonoa, Elmako diruzaina urte luzetan eta gaur hilda. *Jose Antonio Agirre*, 21, baxua, hau ere hilda itsasoan zenbait urte ibili ondoren. *Jesus Palacios*, 24, tenorea, Ulgorren lan egin eta gero, jubilatua.

Jarrita ezkerretan, *Leandro Ibañez*

"*Txomin txiki*", 38, kitarra jolea, hau ere hilda Elman ibili ondoren. Pianoan, azkenik, *Juanito Artzamendi*, artean 20 urte baino ez, eta taldearen arima. Geroztik Arrasaten musikarekin zerikusia izan duten ekimen ia guztietan eragile izan duguna, bai Udal Musika Bandan, bai Arrasate Musikalen ere. Gaztetandik erakutsi zituen musikarako dohainak. Jantzi kutsatubakoak Donostiatik ekarri zituzten •

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea 8,
ARRASATE

Esankorra	Osotoro eragin,	Asti	Bihoztunak
Laguna	Ikara	mugierazi Itsas arrainak	Dago	
Inpromatu				
Toka, Dauka				
			Artsenikoa	
			Harrera on	
Roentgen	Ibaietako igarobidea			Lehenengoa
Joan den urtean	Esaten zidan			Erbioa
		Gizon izena		
		Uranioa		
Seguru			Erdi, hitz elkar.	
Ukapen			Soro	
		Italiako telebista		Bokala
		Adin bereko		Ontzat har
Geruza			.. egin, asebete	
Lurralde hotz batean			Ihardun	
				(errep.) Gorotza
Detektagai- luak				
Betebeha- rrek				
			Irish Republic Army	

ENBIDOTik hartua, ELKAR-en baimenarekin

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak

kanpo eta barruko atearak

Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

Ezezaguna

Tren hartan, Lisboako bidean,
aldameneko eserlekuan, hitzik gabe
-damutu zitzaidan gero-.

Malagan, iluntzean, argiz beteriko
tabernazuloan, oso erreta biok
eta ez zenidan begiraturik eskeini.
Berriro ere Malasañako taberna hartan,
zuriz jantzita, auskalo zein bizio
edota zein bertuteren jainkosa.

Sevillan, zure begi zerutiar
eta adats beltzak liluraturik,
leku sinesgaitz hartako barran etzanda,
begiratua koparen hondoan finkaturik
-mozkorturik agian-.

Granadan grisak ziren zure begiak
eta sua eskatu zenidan,
eta ez zintudan berriro ikusi,
eta bila ibili nintzaizun.

Edo zine-sarreran, ez dakit non,
barrezka zebilen jendeak inguraturik.
Eta berriz ere Madriren, gau galduan,
taxi baten zain biok,
ezta esaldi atsegin bat, komentario
hutsalen bat ere egin gabe...

Cordoban, hotelerako bidean, ez dakit
zein lekuz, ez dakit zein hizkuntzaz
galde egin zenidanean,
eta urrunduz ikusi zintudan,
eta madarikatu egin nuen bizitza.
Zenbatetan zabiltzan ene ondoan,
baita imajinazioan ere,
zer esan ez dakigula.

Eta bai; bapatean tabernaren batean edo
ene etxera ate joka, pisuz okerturik,
agertzen zara, hutsal eta beti ere ezberdin,
zure munduen bila, neuk memoriarik
ezin izan dezakedan munduak.

Felipe Benítez Reyes

Los vanos mundos, Granada, 1985.


Itzulpena: Jon Iriberrri

lurrundegia, opariak
eta jostailuak

Z a r r a o a

apaindegia

Erdiko kale 79 19 37



Ferrerías 79 87 62

■ **Saskibaloirik onena baita ETBn ere:** "NBA90" izenburupean joan den larunbatean hasi ziren ETBkoak Estatu Batuetako Saskibalo Ligarik garrantzitsueneko (NBA) partiduen irudiak eskaintzen. Adierazi dutenez, larunbatero emango dira partidu hauek, erreportai, elkarriketa eta beste partiduetako jokaldirik onenen irudiekin batera, datorren ekainera arte. Hasteko ordua, arratsaldeko 15:20an.

Jakina da TVEk ere eskaintzen dituela NBAREN partiduak, ostiralero, gaueko bederatiak inguruan, "Cerca de las estrellas", Ramon Trecet erreteriarren eskutik. Madrilako ostiraletako ordu gorenetan ematen duten bitartean, Ihorretakoek larunbat arratsaldeetan jarri dute, beste kirol emanaldiekin lehia egiteko moduan.

Saskibaloizaleak pozik egon daitezke. Saskibaloia Estatu Batuetan jaio zen eta, oraingoz behintzat, hangoa da jokatzeko den ikusgarrien eta ederrena. Alde itzela dago Real Madrid, Milan edota Maccabii-kustea edo itsasoz bestaldeko Chicago Bulls, L.A. Lakers edo Detroit-eko Pistons gogorak. Eta ez dezagun ezer esan konparazio horretan Taugres, Askatuak eta Caja Bilbao sartuko bagenu, normala den bezala, bestalde.

Ez pentsa, guzti honekin, saskibaloizale amorratua naizenik. Ez naiz. Ez dut uste inoiz partidurik osorik ikusi dudarik, telebistaz zein zuzenean. Baina azken aldi honetan, txiripaz edo, etxera heldu eta telebistan NBAko partidua ematen ari zirela, azken ordu laurdena ikustea suertatu eta egia esan, gehiago ikusteko gogoz gelditu. Izan ere, NBA edozein telebistak eskain dezakeen ikuskizunik onenetakoa bait da. Horregatik, erronka latza eta polita hartu du ETBk.

■ **Aurtengo San Sebastian egunez, bai:** Aurten portatu dira Euskadi Irratikoak San Sebastian egunez. Iaz ez bezala, aurten ez gaituzte ia goiz osoa zarzuela entzuten laga. Goizean goizetik txintxo ibili ziren Arantxa Irastortza, Aldo eta bestelako kideak, baita danborradaren emanaldikoak ere., Euskadiko Irrati nazionalari dagokion moduan.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Gatsby Handia:** Larunbatean, 15,20etan, Elliot Nugentek zuzendutako filmea. Antzesleak A. Ladd, B. Field, M. Carey. Honako pelikula hau, gangster misteriotsu eta dagoeneko erretiratua, heriotza aurkitzeraino eramango duten gertakizun harrigarrietan oinarritzen da, bide batez 20. hamarkadan Estatu Batuetan hazirik zegoen gizarte dirudunaren islada nabarmentzen duelarik.

■ **Futbola:** Larunbatean, arratsaldeko 8etan, Sadar futbol zelaitik Osasuna eta Bartzelonaren arteko neurketa. Bi taldeak ere momentu onean helduko dira zita honetara: "gorritxoak" ligako laugarren postuan, 25 puntu eta 7 positiboz; Barça, berriz, 26 puntuz, ligako bigarren postuan (eta dagoeneko kopako finalerdietan, asteazkenean Errealak kanporatu eta gero). Osasuna, Osasuna, oe, oe, oe...

■ **Lulu:** Fernando Cerchioren filmea, igandean, 15,25etan. Filme honek kantari baten bizitza, eta hainbat gizonekin dituen harremanek sortutako egoera harrigarriak azaltzen ditu. Antzesleak Marcello Mastroianni, Valentina Cortese eta Jacques Sernas.

bideoak



Lehen basoak

Lurraren historiaren zatirik luzeenean, lehorrean ez zegoen bizirik. Baina orain dela 400 milioi urte inguru, uretatik etorritako landare txiki batzuen inbasioa hasi zen.

David Attenborough-ek mai-suki erakusten digu bilakaera hori, Elhuyarrek bai Betan zein VHSn eskaintzen digun bideo honetan.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



Hauxe duzue joan den ostiraletik zuen aparailuen UHFren 23.kanlean aurkituko duzuen ATBren ajuste taula. Arrasate TB jartzen du. Monokanaldun antena duzuenok segurenik 23 kanaleko amplifikadorea ipini beharko diozue antenari, 23. kanala ondo ikusi ahal izateko. Badaezpada ere, kontsulta ezazue zuen antena jartzaileekin. Oraingoz ajuste taula Arrasaten hartzen da. Hala ere, emisorearen norabide zabalkundea medio, baliteke Aretxabaletako zenbait lekutan ere seinalea jasotzea.



Joan den ostiralean Gasteizko Altel Komunikazioak enpresak ATBren emisora jarri zuen Arrasateko Udalak Murugainen daukan antenan. Argazkian Bixente eta Esteban teknikari arabarrak.



Koldo Rodriguez da Berriak informazio saioa aurkezteko ditugun lau lagunetako beste bat. Koldo gasteiztarra da jaiotzez, S.Viatorreko erlijiosoa eta, nola ez, S. Viator ikastolan ematen du eskola, REM 3. eta 4. mailatan euskara irakatsiz.

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefaxa: 793412

"EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoan

79 04 28 Tfnoa Arrasate



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Zoriontsu azaldu nahi duzu besteen aurrean, baina barrenean ez zaude batere kontentu zeure buruarekin, ez bait duzu lortzen ingurua menpean edukitzea.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Sentibera zara gizalegez eta izakera horrekin txundituta laga izan dituzu denak. Zure ingurura datorren guztia lortuko duzu portaera horrekin segitzen baduzu.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Zure barrena ikertzea komeni zaizu Sagitario. Urduri zabilta eta zure ingurukoak azkenaldian duzun haserrealdiarekin jabeturik daude, ez dira zuri kontrarik esaten ausartzen.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Zeure ondare eta bizilegeaz hitzegiteko joera daukazu azkenaldi honetan. Dirua aurreratzeke duzun zaletasun hori zekenkeria bihur liteke.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Lasai eta ixila zara eta zaila zaizu zure sentimntuen berri besteei ematea, autosufizientea zarela uste bait duzu. Kontuan hartu jarrera honek bakardade bidera eraman zaitzakeela.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Gehiago lan egiterik daukazu ala ez frogan daukazu zeure burua etengabe. Lasai har ezazu betebeharra, indarrak ere goia joko du noizbait eta.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Arazoak izango dituzu lantokian, ezusteko erabakien ondoren eginbehar berriak suertatuko zaizkizulako. Ez estutu horregatik, badakizu edo zertara moldatzeko gauza zarela eta.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Suerta litekeen edozein aldartetara moldatzeko kapazitatea izango duzu aste honetan Libra, baina, ez ordea, aldarte horiek eskatuko dizun giro berria sortzeko.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Txantxakeriarako baino hasi ez duzun harreman hori lehenbailehen etetea komeni zaizu, laguna zurekin maitemintzen hasia da eta. Pertsonekin ezin da jolasean ibili Acuaris.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Atsegina eta bihotz zabala zara besteekin, begiko zaituzte horregatik. Jendaurreko lanen bat suertatuz gero ez galdu aukera, arrakasta ziurtatuta daukazu eta.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Ustez besteek dituzten arazo psikologikoak aztertu eta ondorioak atera nahian zabilta. Kontuz ibili esaten ari zarenekin norbaiti min egin diezaikezu eta.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Elikadura zaindu beharrean zaudela somatu duzu, baina ez daukazu behar adinako borondateirik horretan hasteko. Azaleko gaixotasunen bat azaldu edota pozointzeko arriskuan zaude.




HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- * *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- * *Fresatzeko makinak*
- * *Zenbakizko kontrola*
- * *Mekanizazio-zentroak*
- * *Tornuak*
- * *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 798097

IKUS-ENTZUN

ZURE HAURRENTZAKO BIDEO DIDAKTIKOAK



BIDEO HAUEKIN


Gizartean bizi gara

Ingurua ezagutzen

Etorkizuna ezagutuz

geureganatu egiten dugu

LASTER ZURE ETXEAN!!!



Ikus Entzun, S.A.
Frantzia, 37, Gasteiz

100. liburura iritsi da gure «literatura» bilduma.

BABILONIA

Joan Mari Irigoien



euskal literatura-elaberria

ELKAR

Beste 100 betetzen lagunduko diguzulakoan Zorionak guztioi!

Durangoko azokarako prest

NARRAZIOA SEBA SARRIONANDIA HIL ALA BIZI XABIER AMURIZA HADES-EN ERRESUMARANTZ
 - GOI... LETURIAREN EGUNA TXILLARDEGI IPUIN HAUTATIAK - MERCE
 RODRIGUEZ LA KURROA TRI URKIZU GAI... EAN - JON
 MIRANDA... ATEGI
 OILAGORRI... XAIDE
 GORRI... XAIDE
 ITURRARI... XAIDE
 DAMEK... XAIDE
 GARATI... XAIDE
 GARATE... XAIDE
 ARRIETA... XAIDE
 YOURCE... XAIDE
 BATEN A... XAIDE
 BETI DEI... XAIDE
 SARRION... XAIDE
 AGURE E... XAIDE
 EZKONGA... XAIDE
 BRINTZAT... XAIDE
 GALDUAK... XAIDE
 DAVANT... XAIDE
 1280 ARI... XAIDE
 JOXE AUS... XAIDE
 SAGASTIZAE... XAIDE
 PERU LEA... XAIDE
 BERASATEGI... XAIDE
 EDGAR ALLE... XAIDE
 JOSEBA SAF... XAIDE
 ZANTARRA... XAIDE
 SARRIONAND... XAIDE
 IBILTARI... XAIDE
 JAIMI... XAIDE
 EGUNEN APA... XAIDE
 GREENE... XAIDE
 HA... XAIDE
 NEW YORK... XAIDE
 ARTZAIN ZIBEI... XAIDE
 GARRETATIK ER... XAIDE
 BIZITZAREKI... XAIDE
 GOSARIA TIFFAL... XAIDE
 PEDROLO... XAIDE
 IRAI... XAIDE
 GIZON MARGALA... XAIDE
 ARRIETA... XAIDE
 KAKA... XAIDE
 ZAKUR ZAUNK... XAIDE
 ODOLEKO ESKIFA... XAIDE
 ETA ZATIKETEN AI... XAIDE
 XABIER AMURIZA... XAIDE
 TXILLARDEGI... XAIDE
 IP... XAIDE
 URKIZU... XAIDE
 GAUAZ P... XAIDE
 AIZKORPEKO... XAIDE
 PIO E... XAIDE
 ZAHARRA, LURI... XAIDE
 JO... XAIDE
 NAFARROAKO ARTI... XAIDE
 OHOMENDERRIETA... XAIDE
 MARBUTA... XAIDE
 XABIER... XAIDE
 HASIER ETXEBERRIA... XAIDE
 ABUZIAREN 15eko... XAIDE
 HADRI... XAIDE
 XABIER... XAIDE
 SEGIDA... XAIDE
 ZURUTUZ... XAIDE
 ren... XAIDE
 HE... XAIDE
 RR... XAIDE
 HE... XAIDE
 GAU... XAIDE
 IPARRAREN BILA... XAIDE
 JEAN... XAIDE
 BEGIAK BADITIK AINGERU... XAIDE
 XIPRI ARBELBIDE... XAIDE
 MANU... XAIDE

ERRETRATUA... XAIDE
 IRMAN HESSE... XAIDE
 GOIZULIAKO... XAIDE
 IRIONANDIA... XAIDE
 BERTSO-PAPER... XAIDE
 IRICH BOLL... XAIDE
 GAUERDIKO ELE... XAIDE
 PARRAREN BILA... XAIDE
 JEAN LOUIS... XAIDE
 IA BADITIK... XAIDE
 AINGERU EPALZA... XAIDE
 ARBELBIDE... XAIDE
 MANU MILITARI... XAIDE
 ZABALA... XAIDE
 PAIXIBO... XAIDE
 JOXEAN... XAIDE
 IDIA... XAIDE
 TESEU... XAIDE
 ANDRE GIDE... XAIDE
 SAMUR ETA GORDIN... XAIDE
 PIO... XAIDE
 LIGEIA... XAIDE
 IZU IPUINAK... XAIDE
 IDE... XAIDE
 MARINEL ZAHARRAK... XAIDE
 JOHN STEINBECK... XAIDE
 FALO... XAIDE
 MARGINALIA... XAIDE
 JOSEBA... XAIDE
 U... XAIDE
 TXILLARDEGI... XAIDE
 GOGO... XAIDE
 DAZKENAK... XAIDE
 PATXI EZKIAGA... XAIDE
 GARREN GIZONA... XAIDE
 GRAHAM... XAIDE
 ENTRIARI... XAIDE
 G. APOLLINAIRE... XAIDE
 ZABALETA... XAIDE
 DOMINIQUE... XAIDE
 EDORTA GONZALEZ... XAIDE
 GALDUA... XAIDE
 HEINRICH BOLL... XAIDE
 PILAR PARRAGIRRE... XAIDE
 ZKRIBUA... XAIDE
 MANUEL DE... XAIDE
 NTESA... XAIDE
 INAKI BERNAOLA... XAIDE
 MINTZAK... XAIDE
 JOXE AUSTIN... XAIDE
 FRANÇOIS MAURIAC... XAIDE
 IA... XAIDE
 ITALO CALVINO... XAIDE
 LE CARRE... XAIDE
 BATASUN... XAIDE
 NDIA... XAIDE
 HIL ALA BIZI... XAIDE
 N... XAIDE
 EGUNKARI EZKUTUA... XAIDE
 SUNTSITU ZEN... XAIDE
 PATRI... XAIDE
 HAMABOST-ISTORIO... XAIDE
 ENE JAINKO-EIDOR... XAIDE
 Z... XAIDE
 PATRI URKIZU... XAIDE
 ANTONIO MUJIKA... XAIDE
 UZ IGERABIDE... XAIDE
 TA... XAIDE
 ERREGALOKOAK... XAIDE
 IO... XAIDE
 BERASATEGI... XAIDE
 AZARRA... XAIDE
 EMEA... XAIDE
 ERREN... XAIDE
 MANOL... XAIDE
 GRAY... XAIDE
 SOA... XAIDE
 IA SA... XAIDE
 JAK... XAIDE
 TOMIN PEILLEN... XAIDE
 ROBERT LAXALT... XAIDE
 SASIAK ERE... XAIDE
 JIM THOMPSON... XAIDE
 GERLAKO TRESNA BIZIDUNAK... XAIDE
 JOXE AUSTIN ARRIETA... XAIDE
 AHANZTURAREN ARTXIPELAGOA... XAIDE
 JUAN... XAIDE

Beste hamaika liburu eta disko berri
DURANGOKO AZOKAN
ESKA EZAZU, MUXUTRUKU, ELKARen ALDIZKARIA